

TOKIKOM

2022ko martxoa | 223. zenbakia

ai! kor!

txorierriko aldizkaria



Deine Larrabeiti eta Bego Vicario

Esker ona



POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI
S.COOP

BATXILERGOA ETA LANBIDE HEZIKETA



egiteko aukerak



Eman izena!

www.txorierri.net



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEGAILERRIA
HEGAILERRIA




HETEL

-  **4** Iritziak
-  **5** Gutunak
-  **6** Laburrak eta albisteak
-  **12** Gurean izan da... Estitxu, abeslaria
-  **14** Gaztea eta... Naia Petralanda, kirolaria
-  **16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **18** Menditik patxadaz
-  **20** Bego Vicario eta Deine Larrabeiti, EHU
-  **24** Kievetik Zamudiora
-  **26** Irudi miragarriak
-  **28** Iñigo Martinez de Alegria, "Manci", arraunlaria
-  **30** Korrika badator!
-  **32** Emaus... Athletic Club
-  **33** Herbarioa... Ereinotza
-  **34** Errenta aitorpena
-  **35** Aikorrizketa... Joseba Sarrionandia, BANen
-  **36** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa
-  **38** Agenda



24 Kievetik Zamudiora



30 Korrika badator!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral



diruz lagundutako aldizkaria

aikor!
txorierriko aldizkaria

Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko
Euskara Elkarten Federazioa
(Lagatzu, Zorritzeta eta Tximintx
komunitatea)
944 523 447 / 688 864 135 /
747 406 561
aikortxori@aikor.com / www.aikor.eus



Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea
Kolaboratzaileak: Oihana Astobiega, Erika, BIlbao Jose Angel Mentxaka,
Iñaki Olabarrieta, Guiomar Gordon, Joanes Camara eta Txiribita

Zuzentzaileak: Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Estitxu Perez (688 782 642)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 8.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako
esanen edota eretxien erantzukizunik

Bizitzak gainezka egin ez diezagun

Bizi dugun pandemiak, hondamendi ekologikoak eta gerra geopolitikoek kapitalaren aurpegi ilunena azalarazi dute. Distopia absurdoenak ere bestelako begiradarekin ikusten hasiak gara.

Azken urteetan bizi izandakoak gure barrualdeak astindu ditu. Kanpoan, berriz, lehengo lepotik burua, norabide berrean jarraitzen du munduak, beldurra ematerainoko norabidean. Baina oraingoan, begira geratzearen faktura garestiegia da. Eta ikusitakoak, sentitutakoak eta bizi izandakoak ekintzetara garamatzate ezinbestean.

Gutxi batzuen aberastasun gosea erdigunean jartzen duen sistema krudel honi STOP esateko unea iritsi zaigu, premiazkoa zaigulako. Herritarron, langileon, gu guztion bizitza erdigunean jarriko duen eredu baterako oinarriak ereiteko lurzorua prest daukagu. Bada garaia. Langileok okupatu behar dugu erdigunea, geure egin behar dugu, bizitzak gainezka egin ez diezagun.

Nola? Oinarritzkoa denetik abiatuz, gure bizi-premiei arreta jarritz: zaintza lana banatu, enplegua banatu eta ondasuna banatu.

Zaintza lanek duten benetako balioa aitortu eta era parekidean banatu. Enplegua herritar guztiei bermatu, gehiekin 30 orduko lanaldia eta 1.400 euroko gutxieneko soldata lege ezarri (enpleguaren ordainetan ez ezik zaintzaren ordainetan ere bai). Eta azkenik, ondasuna banatu: kapitalaren errentei zerga errekargua handituz, herritar guztiei osasuna, zaintza, hezkuntza eta etxebizitza eskubidea bermatzeko zerbitzu publikoen garapenera bideratu. Banaketa hirukoitza.

Hori guztia posible delako. Eta bizi dugunak urgentziak mahai gainean jarri dizkigulako. Eta batez ere, gure beharrek eta bizitzekin negoziario egiten jarrai ez dezaten. Zaintza eskubide gisa aitortu eta bizitza sostengatzeko lan guz-



ERIKA BILBAO

LAB sindikatuaren eskualdeko arduraduna

tiak berandu baino lehen publikatu behar dira: adin nagusikoen egoitzak, etxez etxeko laguntza zerbitzuak, etxeko langileen enplegua... Nahitaezkoa eta egingarria delako. Gaur egun ditugun egitura, instituzio eta eskumenetatik egitea dagoelako. Kalitatezko zaintza sistema publiko komunitarioa behar dugulako.

EGIN DEZAGUN hori guztia POSIBLE euskaradun lurraldean. Euskal langile herria bagarelako nor, horretan gabiltzako eta, batez ere, aurrera eramatea posible dugulako. Zaintza lana, enplegua eta ondasuna banatu.

Eta 22.a be badatorku Txorierrira, hutsik egin barik. Gogotsu gagoz, irrikan! Nahiz eta batzuentzat ospakizun hutsa izan (nahi bail), aldarrikapen koloretsu etenbakoa da gure Korrika eta auzolan handia deukona atzean.

Guzurra emon arren, gure eskualdean bertan oraindino be hainbat traba izaten doguz antolaketan: batzargelak lortzeko, kilometro batzuk saltzeko... Baina ez dira 42 urte luze alperrik pasa. Oztopoei aurre egiten ikasi dogunez, inoren zain egon barik, geuk ekiten deusogu. Eta horixe da egin behar doguna, ekin! Euskara larrialdi linguistikoan dago, ez dagigun

Hitzekizu!



OIHANA ASTOBIETA
Irakaslea

ahaiztu! Egoera aldatu gura badogu, danon esku dago. Izan be, euskaldunok komunitate aktiboa osatu behar dogu, hitzetatik ekintzetara pasaz, aurtengo leloak dinoan lege: HitzEkin! Euskararen alde zagoz, bada, egizu! Ekin eta ekin zure ingurukoakaz, bata-besteari eraginez; holan lortuko dogu-eta gure hizkuntza sendotzea. Horretarako, erreferente euskaldunak behar doguz eta euskaldunak erreferente bihurtu.

Hartu egizu, bada, konpromezua eta izan zaitez zu zeu zure inguruko erreferente euskaldun! Euskalduna bazara, egizu euskaraz! Hitzekizu!

Alaia
fruta-denda

Etxez etxeko zerbitzua
Bertoko produktuak

Taller, 5
48170 Zamudio
94 485 05 85

HARATEGIA
ALBERTO

Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

AmAr
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburumbata:
8:00-13:30

Uribe plaza, 1 behea
Zamudio
94 4520419

Txorierriko gazteria zutik!

500 urte, 500 urte pasatu dira Gaztelako Erreinuak Amaiurko gazteluko setioa eta erorketa sustatu zuenetik. 1512an Gaztelako Erreinuak abiatutako konkistaldiaren ondorioz, haien proiektua inposatu nahian, Amaiurko bataila gertatu zen, euskaldunon eskutik etorritako askapen saiakera eta borroka. Gazteok duela 500 urte emandako batailaren muina gaur egun presente dugu. Espainiar eta frantziar estatuekiko lehiaren forma aldatu den arren, gatazkak berdina izaten jarraitzen du. Herri gisa desagerrarazi nahi izan dute Euskal Herria, baina traba eta oztopo guztien gainetik, herri bezala aske izateko nahiak ekarri gaitu honaino. Mendeetan zehar zapaldua eta borrokatzera behartutako herria da gurea. Erori, altxatu, borrokatu, irabazi! Amaiurren ereindako haziak loratu dira eta belaunaldi bezala prest gaude olatu atzerakoi eta autoritarioei aurre egiteko. Injustizia eta zapalkuntza guztiei aurre egiteko prest gaude. Gure herriaren historiak emandako irakaspenetatik jasotako balio eta ezagutza guztiak kontuan hartuta eraikiko dugu herri hau. Ez ginen atzo sortu, borroka hari luzeetatik gatoz eta urrats berriak emateko prest gaude! Bostehun urteren ondoren, ZUTIK gaude!

"BostEHun eta zutik!" lemapean abiatuko dugu aurten Ernai gazte antolakundeko kideekurtero bezala antolatutako udaberriko ekimena. Udaberriko ekimena



gazte independentisten urteroko topalekua da eta bi urtez COVID-19a dela-eta egin gabe egon ondoren aurten martxa formatuan bueltan ekarri dugu.

Apirilaren 14tik 17ra Baztango bailarian izango den ekimena da Bostehun eta Zutik! Eguenetik domekara bitarte eskaintza zabala izango dugu. Zugarramurditik Erratzura egingo dugu mendi martxa lehenengo egunean Amaiurtik pasata. Erratzun kontzertuak izango ditugu eta bertan gaua pasata, bariku goizaldean Elizondora abiatuko gara eguerdian. Elizondon igaroko ditugu beste bi egunak, eta egitarau politikoa izan-

go dugu, hamaika problematika eta alternatiba jorratu zein ezagutzeko aukera izanda hitzaldi edota tailerrekin. Bestalde, aisialdirako eskaintza izango dugu, baita musika festibala ere iluntzeetan, Skabi-dean, Iheskide, Xiberoots eta Tribade taldeekin beste askoren artean. Apirilaren 17an Elizondotik Iruñera joango gara, topagunea bertan ospatuko den aurten Aberri Egunarekin amaitzeko. Hirian egitarau oparoa egongo da egunean zehar.

Egitarau oparo horretaz gozatzeko sarrerak daude eskuragai: gazte martxa osorako bonua edo eguneko bonua. Bonuak fisikoki, Bizkaian Bilboko Kurruli edo Errondabiden, zein online, BIBE plataforman, eskuragarri daude jada.

Txorierriko gazte martxako aurkezpena apirilaren 1ean egingo dugu Hori Bai gatzetxean (Larrabetzu). Bertan gazte martxaren inguruko informazioa emango dugu eta aisialdi eskaintza egongo da. Gainera, Txorierriko Ernaiko kideok autobusa antolatuko dugu bertaratzeko, beraz, interesik badaukazue, jarri kontaktuan gure sare sozialen bidez.

Bi urte eta gero, Euskal Gazteria elkar-tu, ezagutu, harremandu, gozatu eta ikasteko tarte izango da. Belaunaldi ezberdinetako gazteon arteko topaleku nazionala. Bizi ditugun zapalkuntzei aurre egitera goaz! Gazte independentistok elkartuz irauliko dugu egoera. Euskal Herri aske, sozialista eta feministarantz! Gazteok independentzia!

Urko Dañobeitia

Iz
Txantxangorri, 2
ZAMUDIO
946 036 943
Ile-apaindegia
estetika

Ile-apaindegia
M^a Antonia Llodio
Txorierriko etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

JB Construcciones-Reformas
IÑIGO BARCENA
Igeltserotza orokorra
Especializateak:
Xalfla-lanak
Zoruak
944522910 - 665703312 - 652772016

LEIRE BEGOÑA
ULE-APAINDEGIA
MUNICHALE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32
Jarrai! jarraigu! Facebooken

LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK
Garbi-ikatzak, orokorrean
Auzokoen komunitateak
Mantentze garbi-ikatzak
Bulegoak eta lokalak
Oliniko enbriko garbitutak
Ikastetxeak
Zahar bilerrak
Besade Plaza, 1 - B^a Aldekone
48160 DERIO (Bizkaia)
loreagarbi@euskalnet.net
Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

tik tak
EGUNEKO MENUA
lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria
9€
T: 94 454 55 55
Bestorrene 5, Behea
48160 DERIO

Aste Santuko kanpusa, Hegalariak taldearen eskutik

Hegalariak Sondikako areto-futbol taldeak kanpusa antolatu du Aste Santurako. Kanpusa sei urtetik 12 urtera bitarteko umeentzat da eta apirilaren 19tik 22ra egingo da, 09:30etik 14:00etara, Goronda Beko kiroldegian. Izena emateak 55 euro balio du eta apirilaren 6ra arte egin daiteke www.hegalariak.org webgunean bidez; barnean sartzen dira aseguruak, kamiseta eta diploma.

Loiu Fest musika-jaialdia

Loiuko Udalak Loiu Fest musika-jaialdia antolatu du apirilaren 16rako. Jaialdian, musika-talde hauek hartuko dute parte: Luhartz, My Bastard Friend, Lowe, Tequilas eta Lehian. Jaialdia 12:00etatik 22:00etara izango da eta musika talde bakoitzak kontzertua egingo du herriko taberna edo jatetxe batean. Zehatz-mehatz, zirkuito hau prestatu dute: 12:00etan, My Bastard Friend, Toki Onan (Larrondo); 14:00etan, Tequilas, Nagusien Etxean (Zabaloetxe); 16:00etan, Lehian, Batzokian (Zabaloetxe); 18:00etan, Lowe, Sagardotegian (Zabaloetxe); eta 20:00etan, Luhartz, Gozko Etxean (Lauroeta). Udalak jakinarazi duenez, doako autobus-zerbitzua egongo da, entzuleak leku batetik bestera eramateko.



Luhartz taldea. a: Anboto



Lezamako arazo nagusia da etxebizitza babesturik ez egotea, herritar gehienek ustez

Lezamako Udalak hala eskatuta, Giza-ker enpresak inkesta egin die 18 urtetik 55 urtera bitarteko 400 lezamarrei, euren kezkak eta udal-kudeaketari buruz duten iritzia ezagutzeko. Beste gai batzuen artean, inkestatuei etxebizitzari buruz galdetu zaie. Inkestatuen % 33,5ek uste du Lezamako gaur egungo arazo nagusia dela babestutako etxebizitzarik ez egotea. Bestalde, inkestatuen % 15,3k lehen etxebizitza eskuratzeko beharra du, eta ehuneko horren % 75,4k Lezaman bizitzen jarraitzeko asmoa du.

Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra dutenen % 65,6 etxebizitza bilatzen dabil eta, inkestan jaso den moduan, nahiko lukete etxebizitza hori 61-90 metro koa-drokoa izatea (% 60,7) eta hiru logela (% 55,8). Era berean, inkestatuen % 29,5ek eraikuntza berriko etxebizitza nahiago du, baina gehienek uste dute berdin diola eraikin berria den ala ez. Etxea erosi behar dutenen % 68,9k adierazi du babes

publikoko etxebizitza jabetzan eskuratzeko asmoa, eta % 9,8k alokairuan.

Udalak jakinarazi duenez, emaitzak kontuan hartuta, diagnostiko bat egingo du eta hori ibilbide-orri moduan erabiliko du "Lezaman Babes Publikoko Etxebizitzak eraikitzeak aukerak dakarren prozesu luzean aurrera egiten jarraitzeko". Beste aldetik, gogora ekarri behar da herriko zenbait elkartek eta herritarrek Etor-kizuna Eraikitzen etxebizitzaren aldeko plataforma osatu zutela iaz eta euren aldarrikapen nagusia dela herrian jabetzarako edo alokairurako etxebizitzak eraikitzea.

Lezamarrek aipatutako beste arazo batzuk hauek dira: dendarik ez egotea (% 14,8), girorik ez egotea (% 9,5), zerbitzurik eza (% 8,3) eta garraio publikoa (% 7). Nolanahi ere, inkestatu gehienak pozik agertu dira udalerriarekin eta 10 puntutatik 8.06 puntu eman diote. Inkesta osoa udal-webgunean kontsultatu daiteke.

ADARVE KAFETEGIA

Gesariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

aldeko one
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Urtebe 7, beheko
48160 DERIO (Bizkaia)

-Especialitate guztiak
zentro bakar batean
-Aurrekontua doan
-Especialitatea:
umeak

ArtileArtean

Mungialde, 4 - DERIO
946 240 343 / 665 702 751
www.artileartean.com

Hegaztiak antzemateko radarra ipini da aireportuan



AENak radarra ipini du Loiuko aireportuan, hegaztien mugimenduak antzemateko eta animalia horien eta hegazkinen

arteko talkak ekiditeko. Azken urteotan, saiek zenbait arazo sortu dituzte aireportuan eta inguruko herrietan, eta alderdi

politikoek zein alkateek eskatu zuten halako neurria hartzeko. Radarrari esker, hegaztien joan-etorriari, mugimenduari eta hegaldi-ohiturei buruzko datuak ezagutu eta aztertuko dira, eta arrisku handieneko espeziei egokitutako neurri aringarriak diseinatu.

Azaldutakoaren arabera, 3Dko radar-sistema da eta big data eta adimen artifiziala erabiltzen ditu. Estatuko lehen radarra da ezaugarri horiek dituen; Berlin, Frankfurt eta Amsterdam hirietako aireportuetan, bestalde, badaude halako radar-sistemak. Baterako prentsa-oharra batean, Loiuko, Sondikako, Derioko, Zamudioko, Lezamako eta Erandioko alkateek aipatu dute pozik daudela radarra ipini izanarekin eta neurri hori dela AENako eta Trantsizio Ekologikorako Ministerioko arduradunekin izandako hainbat bileraren emaitza. Espero dute sistemak "bizilagunen segurtasuna bermatzea" eta nabarmendu dute "lanean eta elkar-lanean" jarraituko dutela "segurtasun hori bermatzeko eskumena duten erakunde guztiekin".

Martxoaren 15ean, 50 urte bete ziren Jon Ugutz Goikoetxea derioztarra hil zela Guardia Zibilarengandik ihesi. Goikoetxea muga zeharkatzen saiatzen zebilenean egin zuen polizia-kontrol batekin topo. Bertsio ofizialaren arabera, derioztarrak bere buruaz beste egin zuen; hala ere, senideen esanetan bizkarretik tirokatu zuten. Derion ekitaldia egin zen, egia jakitea eskatzeko.

Ekitaldian Goikoetxearen senideek eta lagunek hartu zuten parte eta derioztarra ekarri zuten gogora. Era berean, Egari Zor Fundazioaren izenean, Pilar Garaialde izan zen ekitaldian; Garaialde aita AAK hil zuen. Azaldu zuenez, Euskal Herriko tartzaren testuinguruan izandako heriotza asko argitu barik daude oraindik eta haie-

Jon Ugutz Goikoetxearen heriotzaren egia jakitea eskatu dute Derion



tako bat Goikoetxearena da. "Duela 50 urte Elizondan Guardia Zibilarengandik ihesean zebilela hilik suertatu zen. Bertsio ofizialak erantzukizunetik salbuesten du

Guardia Zibil frankista; gorpuak, ordea, bala-zauria zuen garondoan. Horregatik, bizkarretik erail zuten susmo sendoa dugu".

Bere esanetan, Sekretu ofizialei buruzko Legea indarrean jarraitzeak galarratzen du Goikoetxearen eta beste batzuen heriotzaren inguruko egia jakitea eta zigorrak gabe uzten ditu hilketen erantzuleak. "Indarrean dagoen demokraziaren kalitate eskasaren eta kasu hau eta beste asko argitzeko borondaterik ezaren beste frog bat da". Horren harira,

astikenemotor
www.ASTIKENEMOTOR.com
DERIO - 946 451 781

Bizkaia
- Plater konbinatuak
- Ogitarakoak
- Kaxolak
BIZKARGI KAFETEGIA
Euskal Herria Kalea
48160 - Derio (Bizkaia)
94 454 16 55

ELORRIETA
INSTALACIONES
ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA
Urbe kalea, 12 behe Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

Uriartek eta Perezek txapela lortu zuten Gabirian

Martxoak 19n Eskuz binakako Master LABORAL KUTXA Txapelketaren finalak izan ziren Gabiriako frontoian, eta Aiala Uriarte Gordon loiutarrak eta Uxue Perez Millan lezamarrak txapela jantzi zuten bertan, Olatz Insaustiri eta Irati Betegiri 18 eta 9 irabazita. Txorierriarrek pilota goxoaren modalitatean jokatu zuten promozio kategorian. Partida gogorra izan zen. Txorierriarrek galtzen hasi ziren, baina azkenean serio ipini eta nagusitu egin ziren partidaren.



Gure Señeak elkartearen bideoklipa aurkeztea

Bizipoza elkartek *Mundu berri* bat diskoaren bigarren alea kaleratu du, eta bertan bere baitan dauden 10 elkarteri buruzko bideoklipak batu ditu. Elkarte horien artean Derioko Gure Señeak dago, eta apirilaren 8an, 19:00, bere bideoklipa aurkeztuko da Txorierriko Baserri Antzokian, Derion. Onintza Enbeitak "Izan gure lagun" abestiaren hitzak idatzi ditu, eta Alex Sardui ahotsa ipini dio kantari. Bestalde, Kantarelux Zamudioko musika-taldeak ere parte hartuko du ekitaldian.



Pasalekua jarri dute Artxandan, lubaki batera errazago heltzeko

Iazko martxoan, Sondikako eta Bilboko Udalek hitzarmena sinatu zuten Artxanda ingurua aktibatzeke. Plan horren barruan, Burdin Hesiko lubaki bat zaharberitu dute Sondikan, baita hara eramaten duen zurezko pasabidea jarri ere. Lanek 160.000 euro balio izan dute eta lau hilabeteko epean amaituko dira. Lubakia eta pasalekua Artxandako Hatz Markaren parketik gertu daude, Ballano txakolinaren alboan.

Arkeologo batzuek 2016an hondeatu zuten Artxandako lubakia. Hala ere, mendi hegalaeren beheko aldean dagoenez, ez zen erraza hara iristea. Lubakian zakuoihalak jarri dira, 1936an jarri ziren mo-

duan. Era berean, pasalekuak hara ailegatzea erraztuko du eta balioa emango dio lubakiari. Pasalekuak 186 metro luze eta metro bi zabal ditu eta bere sigi-sagako ibilbidea lagungarria da, % 6ko malda gainditzeko. Gainera, pasalekuan gune zabalago batzuk egin dira, eta informazio panelak ezarri.

Zenbait agintari izan ziren azpiegitura berriaren aurkezpenaren: Xabier Zubiaur eta Juan Mari Aburto, Sondikako eta Bilboko alkateak hurrenez hurren; Bilboko zinegotzi batzuk; eta Aintzane Ezenarro Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendaria.



"Mikel Zarate" Haur Literatura Saria

Lezamako Udalak eta Elkar argitaletxeak "Mikel Zarate" Haur Literatura Saria antolatu dute 12. aldiz. Lehen Hezkuntzako ikasleentzat euskaraz sortutako kontakizunak aurkeztu daitezke, jatorrizkoak eta aurretik argitaratu gabeak. Lanak aurkezteko epea maiatzaren 31ra arte egongo da zabalik.

Gutxienez 10 orrialde eta gehienez 50 orrialde idatzi beharko dira, DIN-A4 formatuan eta tarte bikoitza utzita. Hiru ale bidali beharko dira gutunazal baten barruan. Kanpoaldean idazlanaren izenburua idatziko da, eta barruan beste gutunazal itxi bat sartu beharko da, eta

bertan egilearen datuak adierezi eta nortasun-agiriaren fotokopia sartu. Lanak helbide honetara bidali beharko dira: Lezamako Udala – Mikel Zarate Saria, Aretxalde 1, 48196 Lezama.

Epaimahaiak ekainaren 30erako hartuko du bere erabakia. Sari bakoitza emango da, 3.000 eurokoa, eta epaimahaiaren iritziz gutxieneko kalitateko lanik ez balez, ez litzateke saririk emango. Lan saritua Elkarrek argitaratuko du, marrazkiz hornituta. Argibide gehiagorako: liburutegia@lezama.org edo 944 556 126 (Lezamako Udala) eta liburuak@elkar.eus edo 943 310 257 (Elkar).

Kalitateko osasun-sistema publikoa aldarrikatu dute Urdulizeko ospitalearen aurrean



Martxoaren 22an, zenbait plataformatako kideak batu ziren Urdulizeko ospitalearen aurrean, kalitateko osasun-sistema publikoa aldarrikatzeko eta OSI Uribeko zuzendaritzari –ospitale horretan baitago– azken hilabeteotan jasotako 1.230 erreklamazio-orriak emateko. Txorierriko osasun publikoaren aldeko taldea izan zen

plataforma horien artean; gainerakoak hauek izan ziren: Leioan Bizi Plataforma, Algortako Osasun Publikoa Aurrera herri-plataforma, Erandioko herri-plataforma eta Izartu (Mungia).

Azaldu zutenez, pandemiak eta bere kudeaketak agerian utzi dituzte osasun-sistema publikoaren gabeziak, ha-

la nola aurrez aurreko kontsultarik ez egotea, lehen arretaren baliabiderik eza eta langileen baldintza ezegonkorrak. "Lehen mailako arreta kolapsatu zenean, pandemiari eta profesionalen faltari bota zieten errua, baina Eusko Jaurlaritzak urte luzez hartutako politiken ondorioa izan da: pribatizazioa, zerbitzuak kanporatzea, sistema publikoko langileen lan-baldintzen prekarizazioa, murrizketak...", esan zuten.

Plataformek eskatu zuten herritar guztiei kalitateko osasun-zerbitzu publikoa bermatzeko. "Erreklamazio-orrietan batutako neurriak betetzeaz gainera, ezinbestekoa da osasun-sistema publikoa, doakoa eta kalitatekoa bermatzen duten neurriak bultzatzea. Sistema horrek ikerkuntzan eta prebentzioan oinarritu behar du, osasuna modu integralean ulertu, eta pertsona guztion ongizatea erdigunean ipini". Nabarmendu zutenez, ez dute inongo aitzakiarik onartuko, osasun-sisteman egiten den inbertsio eskasa justifikatzeko. "Banketxeak erreskatatzeko dirua egon zen, eta orain, zoritxarrez, gastu militarra handitzeko gaitasuna dagoela agerian uzten dabilta. Hortaz, zerbitzu publikoak indartzeko dirua egon badago. Borondate politikoaren kontua da".

Plataformen iritziz, premiazkoa da beste osasun-sistema bat eraikitzea. "Sistema horrek ezin ditu langileak prekarizatu eta herritarren parte-hartzea ahalbidetu behar du, guztion beharriari benetako erantzuna emateko. Era berean, bermatu behar du lurralde osoan arreta euskaraz emango dela. Sistema horrek doakoa, unibertsala eta kalitatekoa izan behar du". Plataformek herritarrei dei egin die osasun-sistema publikoaren eta kalitatekoaren alde mobilizatzen jarraitu dezaten.

WhatsApp taldearen harpidedunen arteko zozketa

Eneko Zarraoa Garmendia

da martxoko irabazlea eta Baserri Antzokian lagun birentzako bazkaria jasoko du saritzat.

WhatsApp taldean sartzeko eta Txorierriko albisteak jasotzeko, idatziz ALTA hitza eta bidali whatsapp mezua **747 406 561** telefono-zenbakira.




Torrealday
ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA
ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA

ZAMUDION BERTAN GAUDE

 **BAIRES**
Higienizazioa eta ingurumen-garbiketa

Alberto Gainza:
691606715
contacto@baires.es
www.baires.es

Musikala egingo da Mtz. de Lezearen *Bretxa* obrari buruz

a: Erein

Toti Martinez de Lezea idazle larrabetzuarraren eleberrian oinarrituta, Bergarako Antzerki Musikala elkarteak *Bretxa* musikala aurkeztuko du urtarilaren 13an, 14an, eta 15ean, Donostiako Victoria Eugenia Antzokian. Idazlea pozik baino pozago agertu da egitasmoarekin. "Norberaren pertsonaiak agertoki gainean abesten, dantzatzen... ikustea... Hori izugarria da!".

Kontatu digunez, egitasmoa orain dela lau pabost urte hasi zen mamitzen eta haren sustatzaileak dira Oihan Vega eta Valen Moñux. "Proposamena egin zidatenean erabat harrituta utzi ninduten. *Tira, aurrera!* –erantzun nien". Lezeak musikalerako egindako moldaketa irakurri du eta oso pozik azaldu da. "Zaila da nobela oso bat halako lan batean islatzea, baina ia-ia berdina da". Larrabetzuarrak aipatu digu musikala ikusteko irrikan dagoela eta entsegu orokortara ere joateko asmoa duela.

Martinez de Lezeak *La brecha* eleberria argitaratu zuen 2006. urtean.

Handik 16 urtera, euskarara ekarri du Erein argitaletxeak. *Bretxa* eleberria eta musikala batera aurkeztu ziren martxoaren 15ean Donostiako udal-liburutegian. *Bretxa* lanean, Donostian 1813ko abuztuaren 31n izandako gertaerak jaso ditu larrabetzuarrak. "Bertan salatzen ditut armada irabazleek garaitu dituzten plazetara sartzen direnean egiten dituzten lapurretak, hilketak, bortxaketak... Hori lehen gertatzen zen, baita gaur egun ere".

Bestalde, aipatu beharra dago datozen hilabeteetan hainbat proiektutan ibiliko dela. Esaterako, gidoia idatzi du maiatzean Gasteizen egingo den zurezko haize-instrumentuen kontzerturako, eta emakumeei buruzko beste gidoi bat idatzi du Harrobi Dantza Bertikala konpainiarako. Egitasmo hori ekainean aurkeztuko da Getxon. Azkenik, apirilaren 29an *Sorginak eta sorginkeriak* espektakulua aurkeztuko du Barakaldon, Gorka Hermosarekin batera.



a: Idoia Andres



Txakolinaren Eguna apirilaren 10ean Lar

COVID-19ak eragindako pandemia dela eta, Txakolinaren Eguna bi urtean bertan behera gelditu da Larrabetzun; halere, bertako udalak jakinarazi duenez, aurtengoa egingo dute 19. edizioa. Txakolinaren Eguna apirilaren 10ean izango da, eta Txorierriko zortzi ekoizleen txakolina dastatzeko aukera egongo da Larrabetzuko plazan. Era berean, 10 salmenta-postu ipiniko dira.

Azaldutakoaren arabera, Txorierriko Txakolinaren aurkezpena egingo da eta dastatze-azoka ere izango da. Ekitaldian Larrabetzuko (Gorka Izagirre, Sasine eta Sasikoetxe), Lezamako (Basalbeiti, Erdikoetxe, Garkalde eta Magalarte) eta Zamudioko (Magalarte) txakolingileek hartuko dute parte. Txartelak bost euroan salduko dira eta prezioaren barruan egongo dira txakolin kopa bat eta bi txakolin. Bost euro horietatik, Larrabetzuko Udalak euro bana emango die Txokoan herriko emakume pilotarien elkarteari eta Zapareak elkarteari (Europara etortzen diren errefuxiatuen artean janaria banatzen duen elkartea da); bestalde, 2,80 euro txakolingileentzat izango dira.



ospatuko da rabetzun

Azkenik, plazan ipiniko diren salmenta-postuen artean egongo dira artisauak, gazta-saltzaileak eta talogileak. Larrabetzuko Udalak bisitarietara eta parte-hartzaileei eskatu die ekintzaren egunean indarrean egongo diren segurtasun- eta osasun-arauak betetzeko.

Marikobaso Espazioa inauguratu da Derion

Martxoaren 19an hainbat lagun batu ziren Marikobaso Espazioaren egoitzan, Derioko gune berriaren inaugurazio-ekitaldian parte hartzeko. Gazte Orkestrak ordu beteko kontzertua eman zuen, eta egitasmoaren sustatzaileek azaldu zuten haren nondik norakoak. Marikobaso Derioko elkarte, talde eta herritar guztientzako lekua da eta zutabe nagusitzat ditu kultura, euskara, feminismoa eta ekologia. Kopaua ere eskaini zen. "Oso egun ederra izan da eta pozik gaude izan dugun harrerarekin", esan zuten sustatzaileek.

Bestalde, autokudeaketan oinarritutako proiektua da Marikobaso Espazioa, eta apirilaren 8ra bitartean *crowdfunding*-kanpaina egingo da hura finantzatzeko. Ekarpenak itsulapikoa.eus webgunean egin daitezke. Marikobason ekintza batzuk antolatu dira datozen egunetarako. Martxoaren 27an, TXUKUN programaren baitan, 280 Uribe GR garbitzeko ibilaldia egingo dute eta, KORRIKAren harira, txokolatada eta umeentzako tailerrak izango dira apirilaren 6an. Azkenik, apirilaren 9an, Derioko artisauen azoka izango da 10:00etatik 14:00etara.



22.korrika

HITZEKIN

Amurriotik Donostiara

2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era

MATERIALA

HEMEN

SALGAI:

Korrika dendetan,
AEKren euskaltegietan eta
www.korrika.eus atarian.

korrika.eus

22.korrika

"Atzerapausoak egin ditugu askatasun adierazpenari dagokionez"

ESTITXU PINATXO | abeslaria

Abeslari nafarrak *Isilik daude harriak* bigarren diskoa aurkeztu zigun martxoan, Hori Bai gaztetxean, Larrabetzun. Saio akustikoa, intimoa eta gozoa eskaini zigun. Estitxuk historian zehar zentsuratu diren hamar kanta jaso ditu diskoan, bai euskaldunak bai kanpokoak: Leonard Cohen, Xabier Lete, Jethro Tull... Harkaitz Cano idazleak itzulpenak egin ditu.

t: Gaizka Eguzkitza / a: Estitxu

Zelan Larrabetzuko kontzertua?

Oso ongi. Izugarritzko harrera egin zidaten eta oso gustura ibili nintzen bertan. Saioa ez zen oso jendetsua izan, egia da, baina Larrabetzuko publikoa ona izan zen. Ezin dut kontrakoa esan. Herria aspaldian ezagutu nuen, gazteagoa nintzela bertan parrandan ibili nintzelako (kar-kar).

Hori Bai gaztetxea leku txikia da, erabat aproposa zure diskoa aurkezteko, ezta?

Bai. Guk bi formatutan eskaintzen dugu emanaldia: sei laguneko taldearekin edo akustikoa, hiru lagunekoa. Eta Hori Bai gaztetxean, noski, bigarrena aukeratu genuen. Nirekin batera, Mikel Santxez gitarra-jotzailea eta Txema Garces baxu-jotzailea izan ziren taulen gainean.

Zer da *Isilik daude harriak* zure azken diskoa?

Iaz, Naiz irratan hasi nintzen astero musika-saioa egiten. Eta bururatu zitzaidan zentsuraren inguruko kantak berreskuratzea. Azken bolada honetan, nire ustez, atzerapausoak egin ditugu askatasun adierazpenari

dagokionez. Historian zehar, hainbat lekutan eta garaitan zentsuratu dira kantak: frankismoak Espainian,

Elizak, naziek, Argentinako diktadurak, Kuban... Ikerketa potoloa egin nuen eta hainbat saio aur-



keztu eta gero, diskoa egitea pentsatu nuen, haizeak ez eramateko irratan esandako guztia. Badakit gaur egun, podcastei esker, irrati saioak ez direna alferrik galtzen, baina diskoak zerbait fisikoa ematen dizu. Eta horrela jaio zen diskoa. Guztira, hamar kantak osatzen dute lana: batzuk euskaraz daude, baina atzerrikoak moldatu eta euskaratu egin ditugu.

Zelan izan zen ikerketa? Non bilatu zenuen?

Zaila izan da, tamalez, zentsura hainbat eta hainbat kantak eta bideoklipek jaso dutelako. Irratian 500 kanten berri eman nuen, baina diskoan bakarrik hamar jaso ditut. Dokumentazioari dagokionez, liburuak erosi nituen, Internet...

Zelan aukeratu dituzu kantak?

Lau zentsura mota egon dira: erlijiosoa, politikoa, soziala eta morala. Eta lauak islatu nahi izan ditut diskoan. Zenbait irizpide erabili ditut kantak aukeratzeko: istorio bitxiak zituztenak, matxismoarengatik eta arrazakeriarengatik zentsuratuak...



*"Historian zehar,
hainbat lekutan eta
garaitan zentsuratu dira
kantak: frankismoak,
Elizak, Kuban, naziek..."*

*"Estitxu Robles-Arangiz
ahotsik onenatarikoa da;
hemen zentsuratu zuten,
baina nazioartean
arrasta lortu zuen"*

Kantaren bat aukeratuko zenuke?

Ez da erraza, agian hurbilenak esango nituzke, bi euskal kantak: Xabier Leterena, Lourdes Iriondok abesten zuena, eta Estitxu Robles-Arangizena. Estitxuk Euskal Herriko ahotsik onenatarikoa zuen. Kantak ez dira bitxiak, baina esate baterako, Estitxuk izugarritzko arrasta lortu zuen nazioartean, hemen zentsuratu zuten bitartean, Frantzia eta Hego Amerika, Txilen batez ere. Eta hori aldarrikatu nahi izan dut.

Korapilatsua izan zen kantak euskaratzeko prozesua?

Harkaitz Canok egin du lana eta maisua da. Aurreko diskoan ere berarekin ibili nintzen lanean eta badakit artista dela. Itzulpenak errespetuz egiten ditu eta moldaketa bikainak egin ditu. Izan ere, alde literarioaz gainera, alde musikala ere hartzen du kontuan eta hizkuntzaren sonoritatea harrapatzen du. Erran nahi dut silaba zehatz batek errepikari indarra ematen badiu, Harkaitz euskaraz ere horri eusten saiatzen dela. Oso gustura gaude berak egindako lanarekin.

Saltsa guztietako perrexila

Estitxu Pinatxo Olaziregi (Bera, 1987) gazte-gaztea zela hasi zen abesten, 15 urte zituela Egan taldean sartu zelako. Harrezkero, zenbait musika-taldetan ibili da, baita telebistan ere: nafarrak ETB, Telecinco eta Antena3 kateetako musika-saioetan hartu du parte. Iaztik musika-saioa ere egiten du astero Naiz irradian eta, horri esker, *Isilik daude harriak* bigarren diskoa bakarka plazaratu zuen. Lehenengoa, *Haize gorri batek* 2019an argitaratu zuen. Musika alde batera utzita, Estitxu irakaslea da. "Ez, ez dut aspertzeko denbora handirik, Berako Kultura zinegotzia ere banaizelako. Musika garrantzitsua da, baina hortik bizimodua ateratzea zaila da", esan digu.

Ursula
psikologoa
Psikologia & Neuropsikologia

644 649 752 ursula@cop.es
Las Mercedes 31, 4., 3. bul. (Abra 3 erakina)
48930 Areeta (Getxo)

TURREGOITI
IATETXEA
Laurgoa etorbidea, 27
48180 Lailu-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restauranteaunegoiiti.com

Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku

Zaintza Berrak
Logopedia
Podologia
Kiropraxia

clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika

Txanem etorbidea, 9 - Larga | Arriaga eraikina | 48180 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentalezainduz.com | www.dentalezainduz.com

Sondigarbi
GARBITEGIA

ITURRIGANE, 2 EGUNERO
635584941 8:00-22:00

sarraila-denda
Txorierri
ADITUAK SARRAILAGINTZAN ETA SEGURTASUNIAN

946 038 663
625 100 800
info@cerajeriatxorierri.com
www.cerajeriatxorierri.com

Alain Pomposo Zarate
Urkiola, 4. lorria
48160 Deno

yedra
floristas

Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Telefonoa: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com

“Ausarta izan behar da suhiltzailea izateko; oso ausarta naiz ni”



NAIA PETRALANDA PARDO I
kirolaria

Hamazortzi urteko zamudioztarrak grina handia du kirolerako eta grina horrek bultzatu du Kirolenen, Kirol Irakaskuntzen Ikastetxe Publikoan, izena ematera. Bigarren mailan dago, eta gurekin partekatu ditu bere esperientzia, pertzepzioak eta etorkizuneko helburuak.

t: Itxaso Marina Ondarroa

Gaztearen esanetan, oso pertsona kirolaria da eta futboleko txikitatik jokatu du. “Kadete mailara arte Zamudion izan nintzen. Maila horretara arte mutilekin jokatu nuen, baina ezin zen goiko mailetan mutilekin batera ibili eta, nesken talderik ez zegoenez, Arteagara joan nintzen. Ondoren, lau urte eman nituen Bizkerren”. Kiroleneko eskaintza ezagutu eta bertan izena ematera animatu zen iaz. “Pentsatu nuen ez zitzaidala txarto joango. Nolanahi ere, futboleko jokatzeari utzi behar izan diot, ez dudalako denetarako astirik. Horrez gain, uste dut futbolak ez didala aukera handirik ekarriko”.

Lau urte emango ditu Kirolenen eta bere helburua da curriculumerako ahalik eta titulu gehien ateratzea. “Suhiltzailea izan nahi dudalako. Nire iritziz,

titulu horiek lagungarriak izango dira helburuari heltzeko”. Izan ere, azaldu digunez, utero modalitate askoko lanbide-ziurtagiriak ateratzeko aukera dago bertan. “Salbamendua eta sorospena, atletismoa, futbola, saskibaloia, mendiko bizikleta... Lehenengo hiru mailak dira erdi-mailako gradua, eta laugarrena, goi-mailakoa. Ikas-turte bakoitzean bospasei ikasgai ditugu”.


Egunero lan gogorra egin behar duela esan digu. “Kirol asko eta ordu gutxi dira. Egun batean, esaterako, hiru orduan izan ahal gara futbolaren teoriari buruz ikasten, eta gero mendira bizikletaz joan eta bertan beste hiru ordu eman behar. Edo igerilekuan eta bizikletan ibili behar... Hurrengo egunean, berdin. Neke-neke eginda amaitzen dut, baina pozik nago”.

Lehen aipatu moduan, suhiltzailea izan nahi du eta horretarako oposizioak egiteko asmoa du. “Kirolenen bertan ezagutu

nuen lanbidea eta asko gustatu zitzaidan, gauza polita delako bizitzak salbatzea. Arriskutsua dela ere badakit, eta ausarta izan behar dela: ni oso ausarta naiz; beraz, bide horretatik jarraituko dut. Bestalde, herriko lagun bat suhiltzailea da eta oso gauza politak kontatu dizkit bere lanari buruz”.

Teoria ikasiz gainera, proba fisikoak ere egin beharko ditu oposizioei begira. “Pisua altxatu, abdominalak, iraupena... Nesken probak ez dira mutilenak bezain gogorrak;

“Eskola-saioen ostean neke-neke eginda amaitzen dut, baina pozik nago”



nolanahi ere, prestakuntza fisiko handia eduki behar da. Kirolenen egiten dugun lanaz aparte, gimnasia joaten naiz ahal dudaneurrian”.

Kirol-irakaskuntzen ikastetxean jasotzen dabilen trebakuntzari esker lanean ibili ahalko da oposizioak prestatzen dituen bitartean edo horiek gainditu arte. “Aretoko monitorea izan ninteke, edo atletismo-, futbol-... teknikaria. Adibidez, futbolaren bigarren maila, errendimendu handikoa dena, ateratu eta datorren urtean hirugarren maila ateratu dut. Maila hori izanda lehenengo mailako taldeak entrenatu ahal dira. Ahal dela, prestatzaile fisikoa izan ninteke, edo entrenatzailea...”. Aurretik sorosle ibili da Zamudioko igerilekuan eta Gortzen.

Neskak animatu

Lerro hauetatik, neskak kirolari lotutako ikasketak egitera animatu nahi dituzte gazteak. “Oso neska gutxi gaude. Nirekin da neska gehien dituen ikasgela: sei. Eta bederatzi ikaskide gara gaur egun, iazko ikasturtean 15 lagun hasi baginen ere. Lehenengo mailan 16 ikaskide daude eta horietako hiru neskak dira; hirugarren mailan neska bakar dago eta orotara 11 lagun dira. Nire iritziz, neskak ez dira beldurragatik animatzen. Ni ere beldur apur batekin ibili nintzen hasieran, ez nekielako ikasgelan neska gehiagorik egongo ziren... Gainera, oraindik gizonetako ikaskide askok



esaten dizute «beharbada, hobe da zuk hori ez egitea, ezin izango duzulako...». Pentsa liteke gazteok parekotasuna ondo barneratuta eduki beharko genukeela, baina ez da horrela. Nik normalean ez dut erantzuten, okerrago izango litzatekeelako; ahal dudala erakusten dut. Gainera, Kirolene errendimendu altuko ikastetxea da eta han egotea ez da gutxi: oso prestakuntza fisiko handia izan behar dugu bai emakumezkoek, bai gizonetakoek”.

Ez du irakasleen aldetik halako jarrearik sumatu. Hala ere, elkarriketa amai-



tzeko, sarbide-probetan izandako pasadizoa kontatu digu. “Baloiz medizinal bat bota behar genuen ahalik eta urrunen. Talde bitan bereizi gintuen irakasleak: alde batetik neskak, eta beste aldetik, mutilak. Talde bakoitzari baloi bat eman zigun eta gurea txikiagoa eta arinagoa zen. Irakasleak galdetu nion ea bestea, handiagoa eta pisutsuagoa zena, botatzerik nuen. Baietzerantz zidan, eta barkatzeko. Baloia hartu, eta mutilek baino urrunago bota nuen. Harrezkero, irakasle horrek ez dit ezer esaten (kar-kar)”.

elekma
LARRATZEN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO GORRAK
TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TIRAK
Lehenengo markekin • Prezioak onenak
BOSCH, SIEMENS, BALAY
Txarritan erabiltzea: 25-37h • 48180 leku
T: 944 539 232
www.elekma.es

**PELUKERIA
ESTETIKA**
LARRABETZU
Angleri n° 2 Bajo - 48195 LARRABETZU
Tel. 944 558 144

**SARRIKOLA
OGITEGIA**
Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta
Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

Enaitz
TABERNA
Ogitartekoak
Anoak
Plater konbinatuak
94 455 42 15
Garaioltza, 74
48196 Lezama

**TABERNA
GAZTE**
Eguneko menuak
Ospakizunak
Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

*“Kirolene errendimendu
altuko ikastetxea da
eta han egotea
ez da gutxi”*

Aittu hitzaldiak

16-30 urte bitartekoa baza-ra, adi, "Aittu!... ETA ESPERIEN-TZIAK EZAGUTU" zure interesekoa izan daiteke. Gaur egun, pil-pilean dauden gaien inguruko hitzaldi laburrez gozatu eta horren inguruan sakontzeko aukera izango duzu. Hitzaldi bakoitza 15 minutukoa izango da.



Horregatik, hitzaldi birtualetan murgildu eta esperientziak ezagutu, honako gaiak landuz:

- Gazteak eta lan mundua: pausua emateko prest?
- Ikasitakoa deseraiki berdintasunean oinarrituz.
- ONLINE ZAUDE? Teknologien eraginari buruzko solasaldiak.

Azalpenak, adituen eskutik entzungo dituzu.

Horretarako, www.aittuhitzaldiak.eus web orrian sartu eta esploratu. Nahi izanez gero, sortzen zaizkizun galderak egin ahalko dituzu eta handik egun batzuetara erantzuna jasoko duzu.



Horretarako, www.aittuhitzaldiak.eus web orrian sartu eta esploratu. Nahi izanez gero, sortzen zaizkizun galderak egin ahalko dituzu eta handik egun batzuetara erantzuna jasoko duzu.

Mihiluze, berriz ere martxan!

Badira bi urte Mihiluze txapelketa egin ez dugula; pandemiak ez digu horretarako aukerarik eman.

Aurten, dena den, berriro ekingo diogu gogotsu Txorierri hain garrantzitsua izan den txapelketa honi. Neska mutilak kalean euskara erabiltzera bultzatu nahi ditugu jolas honen bitartez.

Txapelketan L.H.5 eta 6. mailako neska-mutilek har dezakete parte. Izena emateko epea apirilaren 8an bukatuko da; Txorierriko ludoteketara joan behar da horretarako.

Atera mingaina eta jolastu euskaraz!



Zainduz programa

Txorierriko Mankomunitatearen Zainduz Programako tailerrak martxan jarriko dira apiriletik aurrera. Programa horren hartzaileak mendekotasun egoeran dauden pertsonak eta haien zain-tzaileak dira. Apirilerako prestaturiko jarduerak honako hauek dira:

- Memoria-tailerra
- Bizkarra lantzeko tailerra
- Hitzaldia eta zain-tzaileentzako autogantza taldea.

Aldez aurretik izena eman behar da. Informazio gehiago nahi izanez gero:

Tel.: 637.06.80.74 (Eider).

Arreta emateko ordutegia: ostegunetan, 09:00etatik 14:00etara.





Txorierrin ere Osasunaren Nazioarteko Eguna ospatuko dugu

1948an, Osasunaren Mundu Batzarak Osasunaren Munduko Eguna izen-datu zuen apirilaren 7a. Data hori Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) sorrera ospatzeko aukeratu zen, eta munduko gaixotasun hilgarrien gaineko kontzientzia sortzeko eta pertsonengan ohi-tura osasuntsuak sortzeko beharrarekin. Beraz, **apirilaren 7an, Osasunaren Nazioarteko eguna denez, Txorierrriko Mankomunitateak ekintza desberdinak eramango ditu aurrera.**

Aurten Txorierrin, apirilaren 3an ospatuko dugu, hainbat ekintza eta sorpresarekin: horietako bat guztiok ezagutzen duzuen Osasunaren Aldeko Martxa izango da. Aurten Loitutik abiatuko gara, eta Sondikan bukatuko dugu. Ibilbide erraza izango da 7,50 km-koa; guztiz inklusiboa, gorpildun aulkiekin egiteko modukoa edota umeen karroekin. Horren bidez, Txorierrriko eta Bizkaiko familia guztiak animatu nahi ditugu kirola egitera eta bizitza osasungarriagoa izatera.

10:00etan elkartuko gara Loiuo Udaletxearen plazan. Han hizlari bat egon-



go da giroa berotzen, eta bertan, lehenengo sorpresa aurkituko dugu. Udaletxearen arkupeetan MUGI TXORIERRI APPa aurkeztuko dugu eta aplikazio hau Android eta IOSentzako eskuragarri izango da. APP horretan Txorierrin ditugun kirolerako baliabideak agertuko dira mapa batean; datuak berritzen diren heinean

APPa automatikoki berriztuko da, dena eguneratua izateko.

10:30ean abiatuko da martxa. Zinta mozketa egongo da eta horren ostean bizikletaz eta korrika ibilbidea egingo dutenak aterako dira eta horren ostean, oinez doazenak, giro alaia eta familiarra sortuz.

Behin 7,5 kilometroak eginda Sondika-ko Larrabarrena parkean elkartuko gara eta bertan, jaiari bukaera emateko, familientzako ekintzak, puzgarriak, musika eta bigarren sorpresa bat edukiko dugu parkearen ondoan dagoen futbol zelaian: ekintza inklusibo bat. Helburua da, kirol inklusiboko festa saio bat egitea, non, nagusiak eta baita umeak ere, aniztasun funtzionala duten pertsonen azalean jarriko diren hainbat ekintzatan parte hartuz; hala nola, gorpildun aulkiarekin ibiliz, edota itsuen lekuan jarritz, norberak bizi ahal izateko, zelan izango litzatekeen kaletik ibiltzea ikusi barik.

Martxa osteko ekintzak bukatutakoan, autobusak egongo dira Loiuara bueltatzeko.



Ikasta



Azkonarzuloeta



Otsagarai

t: Iñaki Olabarrieta eta Jose Angel Mentxaka

Ohituta gaude linea zuzenak erabiltzen lur-eremuak, soloak, etxe-eremuak eta abar banatzeko, baina ez da basakorten kasua. Aspalditik, ez dago argi noiztik, gure mendiak eremu biribilez beteta egon dira, eta badaude gaur egun. Basakortak biribilak dira eta erdigunean harritzar bat dute –edo zuten–, eta perimetroa markatzeko beste era bateko harriak, lau edo zortzi harri, inoiz 16 harri ere bai. Negukoak eta udakoak bereizten ziren: lehenengoak, kortanagusiak, handiagoak ziren eta 245 metro inguruko erradioa zeukaten, eta udakoak, kortatxikiak, 122 metro inguruko erradioa.

Eta zertarako erabiltzen ziren? Bada, mendietan animalien egonaldiak arautzeko. Hasiera batean behiak, geroago txerriak eta ardiak ere bertan babesteko. Ganadu-jabeek eskubidea zeukaten bertara euren animaliak eramateko, ohiturak eta legeak araututa. Ohikoena zen eremu horien barruan edo ondoan txabolak egotea, abereen jabeek erabiltzeko. Bizkai aldean, gaur egun, korta, baserri barruan ganadua edukitzeko lekuari esaten zaio, baina mendikoak lehenagokoak ei dira.

Esan dugunez, ez dago jakiterik noiztik erabiltzen diren kortak, baina lur-eremu bitxi horiei buruzko lehen aipamenak X. mendekoak dira, korta batean eskubidea zeinek duen, bestea nola eta nork markatu behar duen... Dokumentuetan jaso diren auzi askoren iturria ere badira kortak. Izan ere, estandarizatu nahian, sarritan saiatu da haien tamaina legez ezartzen, baina ez da beti lortu. Gehienek

Basakortak

Gaur egun ez dira oso ezagunak, baina gure mendien historian bere protagonismoa izan dute. Izen askorekin eza gutzen dira: kortak, basakortak, kortabaso (Bizkaian); sarobe, saroi (Gipuzkoan); xara, xarodi, bustale (Nafarroan); eta olha, cayolar (Zuberoan). Erdaraz *sel* edo *cel* deitzen zaie.

120 eta 250 metro arteko erradioa dute; hala ere, jakina, antzina ez ziren metrotan neurtzen, brazatan edo besalditan baino: erradio handienak 126 braza zituen, eta txikienak, 63 braza. Neurtzeko era ere bitxia da, erabiltzen ziren barak, kateak edo kordelak udaletxeetan gordetzen ziren.

Egia esan, biribiltasuna ez zen hain arraroa, kastroetako antzinako etxeak biribilak zirelako, eta egurrezko etxolak ere bai. Hor ditugu hilen erritualekin zerikusia zuten cromlech eta tumuluak. Beraz, eremu zirkular hauek oinarri-oinarizkoak ziren eta basakorten kasuan errepikatu egiten dira. Ez da ahaztu behar erdian jartzen zen harriari austarria ere deitzen zaiola. Hauts-harria esan nahi du eta leku batzuetan hautsa ere aurkitu da bere azpian. Suaren erritualen baten seinale?

Toponimian, eta geroago abizenetan, eragina izan dute: Sendagorta, Olagorta, Ganekogorta, Kortabitarte, Kortazar, Kortabarria, Azkargorta, Mañukorta... Denborak aurrera egin ahala basakorten funtzioa aldatuz joan da. Burdin-olak uga-

ritu zirenean eta, ondorioz, ikatza asko behar izaten hasi zenean, hasiera batean abereentzat sortu ziren basakortak ikatza lortzeko erabiltzen hasi ziren. Bestalde, korta batzuk habitatu egin ziren eta baserriak eraiki ziren haien barruan. Eta azken aldaketa nabarmena kanpotik eka-


Urdaibai inguruko lau kortarri ikus-teko proposamena egingo dizuegu oraingo honetan. Hamar kilometroko ibilbide erraza da, Sollube mendiaren ingurutik eta dena pistatik. Arrieta herrira abiatuko gara eta handik Busturira doan errepidetik 2,6 kilometro egin ondoren, etxe abandonatu bat ikusiko dugu ezkerrean: aspaldiko gaurdetxea da. Autoa hor aparkatu, eta oinez jarraituko dugu.

Ez da asko ibili behar lehen kortarria ikusteko: guardetxean bertan, bidearen beste aldean beherantz doan basazko pistatxo hartu, eta 50 metrora topatuko dugu Ikasta basakortaren erdiko harria.



rritako zuhaitzen landaketa masiboa izan da: pinua eta eukaliptoak.

Ez da erraza mendiko kortak ikustea. Baina mendi-tontor batera igo eta bertatik kolore ezberdineko eremu biribilak ikusten badira (ikusitako argazkia), badakigu zergatia. Ortofotoa edo Google Maps erabilita, lurrian eremu biribil handiak ikusten badira, beste kolore batekoak, bertan korta bat dagoen edo egon den seinalea da hori. Bertara oinez heltzen bagara, ia ezinezkoa da han korta bat egon dela antzematea, behintzat kortarririk (erdigunean jartzen zen harria) topatu ezean. Guk dakigula, Txorierrin ez dago horien arrastorik, baina inguruan bai, eta asko: Arratian, Durangaldean, Enkarterrian... Esate baterako, Urdaibai inguruan 100 korta baino gehiago daude dokumentatuta.



Ibilbide proposamena

Kortari gehienek legez, marra batzuk ditu goiko aldean, lau puntu kardinalak adierazten dituztenak. Guardetxera itzuli, eta ezkerrean apurka-apurka gorantz doan pista hartuko dugu. Hirurehun eta berrogeita hamar metrora, eskuinaldean, Alzeta kortaria dago muna gainean. Adi ibili behar da hura ikusi ahal izateko. Pistatik jarraitu eta erraz-erraz ikusiko dugu hirugarren korta: bihurtunearen aurretik, ezkerrean, Azkonarzuola harria dago bide bazterrean, hasieratik kilometro batera edo.

Pistatik segituko dugu, beti gorantz. Etxe bat ikusiko dugu ezkerrean eta ia goian anteneta doan bide asfaltatua topatuko dugu. Hori hartuta, Sollube mendiaren buzoiraino ailegatu gaitzke. Bertako ikuspegi ederraz gozatu ondoren, atzera egingo dugu hasieratik igo garen pistatik jarraitzeko, beherantz oraingo honetan. Ezkerrean merendero bat dago eta ez da leku txarra zeozer ahora eramateko. Aurrerago, eskuineko bidea hartuko dugu bailarara jaisteko. Pistatik ibiltzeaz nekatu bagara,

aukera dugu gasbidetik zuzen-zuzen jaisteko.

Arrieta-Busturia errepidera heltzen garenean, beste merendero bat aurkituko dugu, eta errepidea gurutzatuz hiru pista. Ezkerrekoa eta eskuinekoa beherantz doaz; guk erdiko hartuko dugu, gorantz doana. Berrehun metrora laugarren kortaria aurkituko dugu: Otsagarikoa. Errepidera itzuliko gara; kontuz autoekin! Kilometro eta erdi eskas egingo dugu ibilaldia amaitzeko: guardetxera itzuliko gara. Bestalde, ibilbidea hilaren lehen domekan egiten baduzue, Arrietan gelditu eta ez joan bertako produktuen azoka bisitatu barik.



“Sari hauek beti beste guztien izenean hartu behar dira”

BEGOÑA VICARIO ETA DEINE LARRABEITI | EHUK omenduak

Martxoaren 8a dela eta, Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) zenbait emakumezko lankide omendu zituen “emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde duten konpromisoagatik eta genero-indarkeriaren aurka borrokatzeko egiten duten etengabeko lanagatik”. Emakume horien artean, bi txorieritar izan ziren: Bego Vicario Calvo larrabetzuarra eta Deine Larrabeiti Mendikute zamudioztarra.



t/a: Itxaso Marina Ondarroa

Larrabeiti Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonalaren (AZP) langilea eta Eraldaketa Digitaleko eta Komunikazioko Errektoreordetzaren idazkaria da; eta Vicario, Eskultura eta Arte eta Teknologia Saileko irakaslea, Arte Ederren Fakultatean. Omenaldiak ezustean harrapatu zituen emakume biak. "Ez nuen espero, izan ere, arlo horietako lanak irakasleek egin ohi dituzte gehiago", aipatu du Larrabeitik. "Pozik nago. Azken finean, urte asko egin ditut unibertsitatean eta sindikalgintzan, eta lan handia egin da horren inguruan. Errektoretzako Berdintasun Zuzendaritzarekin ere lan handia egin dut". "Neuk ere apur bat harrituta jaso nuen omenaldia,

L: "Unibertsitateko politiketan berdintasuna txertatuz gero, horrek nahitaez izango du gizarte osoan eragina"

zeren eta artegintzaren barruan oso eremu txikian aritzen bainaiz: animaziogintzan", gehitu du Vicariok. "Beste arlo ezagunago batzuetan ere irakasleak eta emakumezkoak daude, baina, ez dakit, beharbada, beste urte batean haiei tokatuko zaie... Dena dela, nire ustez, sari hauek beti beste guztien izenean hartu behar dira: halako momentuetan norbera ikur txiki bat da, beste guztien lana ordezkatzeko duena". "Erabat ados", esan du Larrabeitik. "Ekitaldian bertan eskaini nien omenaldia AZPko emakume guztiei; gainera, uste dut orokorrean guri oso errekonozimendu gutxi egiten zaigula".

Bien iritzi, unibertsitateak oso egin-kizun inportantea du gizonen eta emakumeen arteko parekotasunaren bidean. "Ikerketa bertan egiten da eta belaunaldi berriak hona etortzen dira ikastera. Orduan, euren egunerokotasunean berdintasuna txertatzen bada, unibertsitateko politiketan berdintasuna txertatuz gero, horrek nahitaez izango du gizarte osoan eragina", aipatu du zamudioztarrak. "Azken urteotan ikastaro pilo bat egin dira indarkeriaren, abusuen... kontrakoak, eta irakasleei zein ikasleei eta AZPko langileoi ematen zaizkigu. Bestalde, unibertsitatearen eskutik, ikastaro asko egiten dira Ertzaintzako, Hezkuntzako, Osasungintzako, Justiziako... langileak trebatzeko, eta oso inportantea da, gizarte osoari eragingo dietelako".

Erronkak ere baditu unibertsitateak. Vicarioren aburuz, "karrera teknikoetan edo gizonen lotuta egon direnetan emakume gehiago egotea lortu behar da, eta, gero, emakume horiek lanpostu horietara ailegatu daitezela. Hori gertatu ezean, ez da aldaketarik gertatuko. Zinemagintzan aspalditik egiten dugu galdera hau: Azken bi hamarkadetan zinemagintza ikasten hainbeste emakume ibiltzen badira, zergatik dago hain emakumezko zuzendari eta ekoizle gutxi? Arrazoi asko daude, eta haietako bat da zuzendu be-

V: "Karrera teknikoetan emakume gehiago egotea lortu behar da, eta lanpostu horietara ailegatu daitezela"

har diren talde teknikoetan gehienak gizonetzkoak direla. Ziur asko, oraintxe esandakoak azalpen luzeagoa behar du, baina, laburbilduz, esan dezakegu lan-harremanetan horretan ere ohiko rolak agertzen direla, eta emakumezko zuzendari guztiek esaten dute esfortzu estra egin behar dutela. Hortaz, beharrezkoa da ertaineko karrera horietan ere emakumezkoak egotea. Bestalde, amatasunak, zaintzak... ere pisu handia dute. Unibertsitateak ez ezik gizarte osoak ere apustu sendoa egin behar du gauzak aldatzeko. Guztiok dakigu erronkak zeintzuk diren eta horiei nola aurre egin, baina baliabideak ipini behar dira".

Autozentsura

Larrabetzuarra da MIA txostenaren egi-leetako bat eta bertan urtero aztertzen dute hainbat alderdi, hala nola animazio-ekoizpenetan emakumezko sortzaileen papera zein den eta pertsonaien estereotipoak. "Emakume asko daude laburmetraien atzetik, baina gutxi dira luzemetraietan eta lidergo-paperetan; animazio-sailetan ere oso emakume gutxi daude. Urterik urte oso aldaketa txikia ikusten dugun arren, oro har, lana zenbat eta garrantzitsuagoa izan, gero eta emakumezko zuzendari, ekoizle, gidoigile... gutxiago daude. Beste aldetik, emakumezkoen proiektuen aurrekontuak gizonen proiektuenak baino txikiagoak izaten dira eta, gure usteetan, autozentsura apur bat dago horretan: diru honekin moldatuko naiz. Era berean, emakumeek zuzendutako edo ekoiztutako lanek dirulaguntza txikiagoak jasotzen dituzte, eta, baliteke arestian aipatutako autozentsurak zerikusia izatea; ekoizlea gizonetzkoa eta zuzendaria emakumezkoa direnean ere antzeko joera antzeman dugu".

Pertsonaien estereotipoak dagokienez, "azken urteotan saiatu da film luzeetan ohiko estereotipoak ez errepikatzen, baina oraindik ere ikusten dira: emakumezkoak



Bego Vicario.
a: Egoi Markaida.
Komunikazio
Bulegoa, UPV/EHU

bigarren mailako pertsonaiak izaten dira, emakumeen artean apenas dago hartu-eman, elkarriketa... Elkarrekin gaudenean emakumeek bakarrik gizonen hitz egiten dugun ideia dago zinemagintzan. Horri lotuta, Brechdel testak aztertzen du ea pelikuletan, errealitatean gertatzen den moduan, emakumeek denetariko gaiez hitz egiten duten, baina elkarriketa horietan ezin da gizonik aipatu, ez aitarik, ez senarrik, ezta semerik ere. Bada, ia ez daude gizonik aipatzen ez den elkarriketak”.

Umeentzako ekoizpenak ere aztertzen dituzte. “Neskentzako produktua bada, neskak dira protagonistak eta mutilak lagun moduan azaltzen dira; harreman normalizatuak islatzen dira. Hala ere, publiko mistorako produktuak badira, betiko joerak antzematen dira: oso neska gutxi dira protagonistak, nesken arteko harremanik ez, edertasunari lotutako estereotipoak... Nahiz eta neskentzako produktuen atzetik emakumezkoak egon, oso sektore maskulinizatua da. Orain dela 15 urteko egoerarekin alderatuta, egia da gauzak aldatu direla eta orain neskak protagonistak diren adibide politak ditugula, baina oraindik badugu erronka handia”. Erakundeen laguntza inportantea da erronkari heldu ahal izateko. “Guk ez dugu ghettorik nahi; halere, ikusten dugu emakumezkoen lana eta presentzia bultzatzeko laguntza estrak beharrezkoak direla eta orain arte egon diren apurrik lagungarriak izan direla egoerak hobera egiteko; horiek bertan behera utziko

balira, atzera egingo genuke. Gainera, kontuan hartu behar da askotan neska protagonistak dituzten egitasmoak aurrera atera direla, emakumezko egileek proiektu horietan sutsuki sinetsi dutelako; bestela, industriak ez luke berez utziko eta betiko eskemetan jarraituko genuke”.

Larrabeiti duela 28 urte hasi zen EHU. Bere esanetan, egoera asko aldatu da AZPn. “Hasi nintzenean, bedel gehienak gizonetzkoak ziren, eta administrari laguntzaile gehienak, emakumezkoak. Zerbitzueta buru gehienak ere gizonetzkoak ziren, eta garai hartan goi-mailako titulazioa behar zuten lanpostu gutxi zeuden. Nolanahi ere, lan handia zegoen eta hura administrari laguntzaileek ateratzen zuten

aurrera, baina ez zitzairen ez ordaintzen, ez onartzen. Denboraren poderioz, lanpostu gehiago atera dira eta emakume asko sartu dira oposizioen bidez. Nik esango nuke Administrazioan, orokorrean, emakumeak sartzen direla A eta B taldeetan, eta leku askotan buruzagitzako lanpostuetan daudela. Administrazioan lan egitea, beharbada, errazagoa da emakumeontzat, esaterako, kontziliazioa bertan enpresa pribatuan baino errazagoa delako. Nolanahi ere, jakina, oraindik gauza asko aldatu behar dira, zeren eta, administrazioan emakume asko egonda ere, beste toki batzuetan bezala hemen ere lehengo rolek segitzen dute: gizonen gehiago hitz egiten dute, euren esanek pisu handiagoa dute...”. Irakasleen eta AZPko langileen ezberdintasuna ere nabaria da oraindik, “nahiz eta AZPko langileak buruzagitzako lanpostua izan”.

Inklusiboa

Hizkuntza modu inklusiboan erabiltzea beste urrats bat da gizonen eta emakumeen arteko parekidetasunerantz. “Bilboko Ingeniaritza eskola, adibidez, duela gutxi arte izan da «Escuela de Ingenieros de Bilbao»”, kontatu digu zamudioztarrak. Hizkuntzaren erabilera egoia jasotzen duten liburuak argitaratu ditu unibertsitateak, eta ikastaroak ere eman dira. “Bertsio luzeak egin dira, laburrak... Orokorrean, ahalegina egiten da unibertsitatearen idazki guztietan hizkuntza inklusiboa erabiltzeko, baina zerbitzu batean edo bestean dagoen



Deine Larrabeiti.
a: Egoi Markaida.
Komunikazio
Bulegoa, UPV/EHU

L: "AZPkook lan handia egin dezakegu irakaskuntza hobetzen laguntzen eta berdintasunera heltzen"

V: "Urte batzuk dira artegintzan beste eredu bat sortzen dabilela, non talde-lana hobesten den"

langilearen borondatearen arabera ere izaten da. Beraz, egunerokotasunean konturatzen zara idazki batzuek ez dutela hizkuntza inklusiboa kontuan hartzen, baina gero eta gutxiago dira. Esate baterako, «los profesores» idatzi beharrean, «el profesorado» idatzi daiteke. "Gure kasuan, ikasgelako gehienok emakumezkoak bagara, genero femeninoa erabiltzen dugu hitz egiteko orduan, eta ez da arazorik izaten", gaineratu du Vicariok. "Are gehiago, Arte Ederretan gero eta gehiago hitz egiten da «e» erabilita, ikasleen artean ez binario asko daudelako. Norbera bultzatuta sentitzeko modua da".

Larrabeitiren ustez, unibertsitatearen helburuetako bat izan behar da parekidetasuna arlo guztietan ezartzen. "AZPkook albo batera uzten gaituzte honelako gaietan; hala ere, pentsatzen dut lan handia egin ahal dugula administrazio mailan nahiz irakaskuntza bera hobetzen laguntzen eta berdintasunera heltzen. AZPko oso lagun gutxi izaten dira erabakitze tokietan edo batzordeetan, eta uste dut erabakiak hartzeko momentuetan gure iritzia ere kontuan hartzekoa dela". Era berean, azpimarratu du unibertsitateak lan egin behar duela ikasleek txiki-txikitik jakiteko nahi dutena izan ahal direla. "Adibidez, karrera Informatika

deitzen zenean neskak zeuden ikasgiletan; Ingeniaritza Informatikoa denean, gutxiago. Hori guztia apurtu behar da txikitatik, eta umeei adierazi ez daudela gizonen eta emakumeen lanak".

Emakumezko erreferente gehiago ikusgai egitea ezinbestekoa da, eta, Vicarioren iritziz, lan egiteko modu berria sustatu. "Talde-lana eta sareak gero eta ohikoagoak dira artisten artean, eta gure fakultateak horretan lagundu duela egia bada ere, gehiago egin behar dugu. Ulertu behar da zinemagintzan eta artegintzan orain arte egon diren formatu indibidualistek eta estratifikatuek ez dutela funtzionatzen, eta sistema horietan ezin dugula gure bizitza sozialarekin eta familiararekin bat egin, estrukturara moldatu behar delako eta makina bihurtu. Emakumezko zinemagileok oso argi dugu ez dugula beste gizonezko zinemagile bat izan nahi. Horri lotuta, urte batzuk dira artegintzan beste eredu bat sortzen dabilela, non talde-lana hobesten den, erantzukizunak eta beharrak banatzen diren eta bizi izatea eta sortzea posible diren".

Txorierrin gure artean euskaraz berbaz
txori tokia




TXORIERRIN UDAL EUSKALTEGIA



	B1 Erabiltzaile independentea	B2 Erabiltzaile aurreratua	C1 Erabiltzaile gaitua	C2 Erabiltzaile aditua
Euskaltegiako ikasleen deialdia B1 B2 C1 C2	Idazmena: maiatzaren 6an Mintzarena: ekainaren 23tik 25era	Idazmena: maiatzaren 5ean eta 6an Mintzarena: ekainaren 30etik uztailaren 2ra	Idazmena: maiatzaren 4an Mintzarena: uztailaren 7tik 9ra	Idazmena: maiatzaren 4an Mintzarena: Ekainaren 23tik 25 era
Deialdi irekia B1 B2 C1 C2	Idazmena: maiatzaren 5ean eta 6an Mintzarena: ekainaren 23tik uztailaren 9ra	Idazmena: maiatzaren 5ean eta 6an Mintzarena: ekainaren 23tik uztailaren 9ra	Idazmena: maiatzaren 5ean eta 6an Mintzarena: ekainaren 23tik uztailaren 9ra	Idazmena: maiatzaren 5ean eta 6an Mintzarena: ekainaren 23tik uztailaren 9ra

Matrikulazio epea: **Apirilaren 4tik 12ra**
Informazio gehiago: habe.euskadi.eus

Herriko Plaza, 3 - DERIO
 Tel. 94 454 00 62 - Fax. 94 454 27 38
 euskaltegia@txorierrin.eus

Kievetik Zamudiora

Azken asteotan, Ukraina komunikabideetako azal guztietan agertu da, Errusiako armada hara sartu delako. Gatazkaren ondorio larrienak bertako herritarrek pairatu behar izango dituzte: batzuk gerrara joan dira borrokatzera, baina beste batzuk Ukrainatik alde egiten dabiltza. Guztira, bi milioi lagun atera omen dira handik eta horietako 25.000 Estatura heldu dira. Marina Moroz gazte ukrainarra Jon Llona eta Ana Otaola zamudioztarren etxean gelditu da.

t/a: Gaizka Eguzkitza

Marina Moroz ukrainarrak 18 urte ditu eta Gubin herrian jaio zen, Txernobylo zentral nuklearraren kilometro gutxira. Gazteagoa zela, hortik batzen zituen perretxikoak. "Poliziak handik alde egiteko eskatzen zidan. Batzuk geuk jaten genituen eta beste batzuk, saldu. Kilo bakoitzeko bi euro ematen zizkiguten", esan digu irribarretsua. Oso jende gutxi bizi da Txernobylen inguruan, batez ere adinekoak. "Gazteak eta alde egin ahal izan dutenak handik joan egin dira; bakarrik baliabiderik ez dutenak gelditu dira".

Marinak ez dauka familiarik eta 2019an Kievera joan zen bizitera. Estatuak ordaintzen zioten soldata txiki bat, gela bateko alokairua, janaria eta ikasketak ordaintzeko. Gerrak hiriburuan harrapatu zuen. "Ez dut bonbarik zuzenean ikusi, eta horregatik lasai nengoen. Baina gerraren ondorioak pairatu egin ditugu: azken egunotan ez dugu janaririk edo botikarik erosteko aukerarik izan, ezin izan dugu dirua kutzazainetatik atera, batzuetan bunkerretan sartu behar izan gara... Eta hainbat eztanda entzun ditugu".

Azken urteotan, Marina Chernobil elkartaren babespean ibili da eta horri

esker ezagutu zituen Jon Llona eta Ana Otaola zamudioztarrak: bost aldiz etorri da euren etxera, uda pasatzera. Txorrierritarrek 2004tik hartzen dituzte Ukrainako umeak uztailean eta abuztuan eta hainbat aldiz joan dira hara. "Ukrainan 50 urteko atzerapena dute, gure gizartearekin konparatuta: gizonezkoek ez dute kozinatzen, etxeen barruan ez dago urik... Hona etortzen diren gazteei erakusten diegu beste gizarte eredu bat badagoela; eta bestetik, Osasun Munduko Elkartek (OMS) gomendatzen die Txernobylo lagunei handik ateratzeko hilabete bian, sistema immunitarioa indartzeko", aipatu du Ana Otaolak.

Europa osoa trenez

Gerra hasi zenetik, bikote zamudioztarrak egunero hitz egiten zuen Marinarekin eta egunero eskatzen zioten Euskal Herrira etortzea, baina gaztea bakarrik zegoen eta ez zen bidaia luzea egitera ausartzen. Hala ere, egun batean, ikaskide baten amak esan zion herritik alde egingo zuela eta Marina berarekin joan zen. "Tren-geltokira joan ginen eta jendez gainezka zegoen, Bilboko jaietan bezala, guztiek Ukrainatik alde egin nahian". Gazteak astebete eman zuen



trennez Polonia, Alemania eta Frantzia zeharkatzeko. Gauak aterpetxeetan, hosteletan eta geltokietan eman dituzte. Hendaia Jonek eta Anak ekarri zuten autoz. Zorionez, Europako gobernuek tren-txartelak musu-truk eskaini dizkiete ukrainarrei.

"Chernobil elkartearekin beti egon gara harremanetan, eta Errusiaren erasoaren haritik, bilerak izan ditugu Eusko Jaurlaritzarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin, batez ere laguntza behar bezala antolatzeko. Errusiarrak besteak beste Txernobyletik sartu dira Ukrainara eta korridore humanitarioa eskatu dugu nahi duenak hortik ateratzeko. Era berean, elkartetik, deialdia zabaldu dugu elkarteko familien artean, Ukrainako gazteak ez ezik familiak ere hartzeko. Ia 200

*Chernobil elkarteari
esker, Marinak bost
uda pasatu zituen
Jonen eta
Anaren etxean*

*"Tren-geltokira joan
ginen eta jendez
gainezka zegoen,
guztiek Ukrainatik
alde egin nahian"*

*Marina "zoriontsu"
sentitzen da, Ukrainatik
ateratzeagatik, baina
gerra bukatzen denean,
itzuli nahiko luke*



"Gerrarik ez, inbasioa"

Jon Llonak eta Ana Otaloak primeran ezagutzen dute Ukraina, aspalditik Txernobyleko umeak etxean hartzen dituztelako eta Ukraina hainbat aldiz bisitatu dutelako. "Azken zortzi urteotan gerra ezagutu dute ukrainarrek: Donbass eta Lugansk herrialdeek independentzia aldarrikatu zuten, Maidan iraultza (edo estatu-kolpea) ere izan dute... Eta horregatik, baliabideak bideratu dituzte gerra ordaintzera: esate baterako, irakasleen soldataren % 20. Oro har, Ukrainako gizartea pobretu egin da azken urteotan; zer esanik ez, Txernobyl inguruko bizilagunak. Eta Errusiako armada euren herrian sartzeak hondamendia birlibildu du. Dena dela, ez da gerra, errusiarren inbasioa baizik".

familiak adierazi dute interesa, baina errealistak izan behar dugu: ez da gauza bera gazte bat udan zure etxean izatea edo familia bat ez dakit noiz arte zurean izatea. Familiek hausnartu egin behar dute, Ukrainako arazoak luze joko du eta: gerra laster bukatu ahal da (edo ez), baina gerraostea ere gainditu beharko dute eta ez da erraza izango", esan digu Llonak.

Europar Batasunak behin-behineko babes-estatusa eman die ukrainarrei: hau da, urte batzuetan, atzeritarren txartela emango zaie eta horri esker, lan egiteko edo ikasteko aukera izango dute. Eta etorkizunean errefuxiatu-estatusa ere eskatu ahal izango dute. Adingabeak, ordea, Bizkaiko Foru Aldundiaren menpe geldituko dira. Marinek "zorionsutzat"

hartzen du bere burua, bere herritik atera ahal izanagatik. Beste batzuk ez dira hain zorionsuak izan. "Ez dakit gerra noiz bukatuko den, baina nik itzuli nahiko nuke", esan du gazte ukrainarrak. "Marina hemen egongo da berak nahi duenera arte", berretsi du Anak. Egunen batean bueltako bidaia egingo du: Zamudiotik Kievera.

enviser

Kale garbiketa | Hondakinen bilketa eta garraioa | Ur eta estolda sareen mantentze lanak | Hiri-altzarien mantentze lanak | Lorezaintza zerbitzuak | Eraikin eta lokalen garbiketa | Hondartzen garbiketa zerbitzuak | Garbiguneen kudeaketa eta mantentze lanak | Lurzoruen deskontaminazio lanak | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.

Ibáñez de Bilbao, 3. 2. solairua, 48001 BILBAO

TEL. 94 424 38 34

Centro Dental

Txorierri

Rocío Astorkia Bordegaray

Col. nº 48000759

Ainhoa Rodríguez Mella

Col. nº 48001337

Igone Nieto Hernández

Col. nº 48001462

Mitxine 7, beheka - 48150 Sondika
(geltoki aurrean)

Tfno.: 944 711 639 - Larrialdiak: 670 985 885


www.cdtxorierri.es

ORTODONCIA21

Irudi miragarriak

a: DAT

Ritmika Miragarri Taldeak 25 urte bete ditu eta urtean zehar zenbait ekitaldi egingo dituzte urteurrenaren harira. Horietako bat da apirilaren 30era arte Kultur Birikan ikusgai egongo den argazki-erakusketa. Orotara 26 irudi ipini dira erakusketa-gelako hormetan eta haietan Derioko taldeko gimnasta batzuk harrapatu dituzte gaine-rako pertsonentzat ezinezkoak diren ja-rreretan. Irudiak Derioko Argazkilaritza Taldeko (DAT) argazkilariek atera dituzte, eta egindako 1.000 argazkiren baino gehiagoren artean aukeratu. Argazki eder-ederrak dira benetan, oso zainduak eta atzean lan ikaragarria dutenak. Argazki-erakusketako irudietako batzuk ekarri di-tugu orrialde hauetara; hala ere, zailantza barik, merezi du Kultur Birikara hurbildu eta DATeko argazkilarien lanez zein Mi-ragarri klubeko gimnasten lanaren eta es-fortzuaren edertasunaz gozatzea. Edonor liluratzeko modukoa da.





“Nire asmoa da 100 urterekin ere arraunean egitea”

IÑIGO MARTINEZ DE ALEGRIA “MANCI” | arraunlaria

Esan digu txapelketarena bere egunik onena ez zela izan; hala ere, larrabetzuarra hirugarrena lotu zen Munduko Indoor Arraunketa Txapelketan, 40-54 urte eta pisu arinaren kategorian eta, hortaz, brontzeko domina eskuratu zuen. Txapelketa otsailean izan zen, online, eta Martinez de Alegriak 6:45.09ko marka egin zuen, 2.000 metroko distantzia ibiltzeko.



t: Itxaso Marina

“Uste dut marka hobea lortu ahal izan nuela. Egia esan, nire helburua zen 6:40ko marka egitea: badirudi segundo horiek oso gutxi direla, baina alde handia dago wattetan, egin behar den potentzian. Nolanahi ere, pozik nago”. Arraunlaria da eta ergometroa askotan erabiltzen du entrenatzeko, batez ere neguan. Bertoko txapelketetan parte hartu ohi du –Donostian, Getxon...–, eta beti dominaren bat lortu; halere, lehen aldia izan da munduko txapelketan. “Ergometro-proba batzuetan saiatzeko asmoa nuen arren, ez nuen munduko txapelketan parte hartzeko asmorik. Baina nahiko ondo ikusi nuen nire burua eta hara sailkatzen saiatu nintzen”.

Txapelketa Hanburgon egitekoa zen aurren, baina COVID-19a dela-eta online



a: ROBAMELY

egin da, iaz bezala. “Herriko frontoian egin nuen, senideek eta lagunek lagun-duta”. Esperientzia bitxia izan zen. “Makina guztiak Interneten bidez zeuden lotuta eta display-ean ikusten nuen aurretik eta atzetik nortzuk zebiltzan. Lehen esandako marka egin nahi nuen, eta hura eskuratzeko erritmoan hasi nintzen, baina ez zen nire eguna izan eta ergometroak gauza berezia du: norbera bere erritmotik gora ibiltzen bada, asko sufrituko du eta ez daki amaierara arte ailegatuko den. Bestalde, Kanadako parte-hartzailea nire atzetik zetorren eta ikusten nuen azkenean harrapatuko ninduela. Orduan, oso odol hotza izan nuen, nigandik metro batera hurbiltzen utzi nion eta indar guztiaz egin nuen azken sprinta: segundo erdigatik irabazi nuen”. Proban bederatzi parte-hartzaile ibili ziren. “Berrogeita hamar urte ditut

eta txapelketa baino lehen haxe zen nire asmoa: hura azken proba izatea eta hemendik aurrera arraun egitea disfrutatzeko; emaitza ikusita beste behin saiatuko naiz, beharbada, ea brontzeari eusteko gauza naizen!”.

Istorio bitxiak lotzen du larrabetzuarra arraunketari. “Hogeita bi urte nituela arraun egin nuen lehen aldiz traineru batean. Lutxanan. Urtebete eman nuen bertan. Ikasketak direla-eta utzi nion arraun egiteari, baina 40 urterekin berriro hasi nintzen”. Handik hona aulki mugikorrek arraunketa –olinpikoa– egin du Raspas klubean, eta traineruan ibili da Raspas, Getxo, Busturialdea, Santoña eta Kaiku klubetan. “Nire asmoa hutsa zen Raspasen aulki mugikorrek arraunketa egitea, baina ergometro-proba batean parte hartu nuen kasualitatez eta, nahiko marka ona egin nuela



*“Izugarri gustatzen zait
itsasoan egotea,
batez ere itsaso
zakarra dagoenean”*

*“Aurten Euskadiko
txapelduna izan naiz
skiflean, masterrean
eta distantzia luzean”*

ikusita, entrenatzaileak esan zidan traineruan ibiltzeko”.

Grina handi-handia du arraunketa-rako. “Batetik, oso lehiakorra naiz, eta bestetik, izugarri gustatzen zait itsasoan egotea, batez ere itsaso zakarra dagoenean. Horrez gain, talde-lana da. Aulki mugikorreko arraunketa, bestalde, oso ezberdina da, ur bare-baretan egiten delako, baina hori ere asko gustatzen zait. Pentsa liteke arraunketa bakarrik indarkontua dela, hala ere, oso kirol tekniko da eta esperientzia handia izan behar da”. Handia ere bada traineruaren eta aulki mugikorraren arteko aldea. “Fisika berdina da; teknika, oso ezberdina. Aulki mugikorra askoz efizienteagoa eta azkarragoa da. Gainera, ezin da bueltarik eman, zuzen-zuzen joan behar da. Egia esan, aulki mugikorra trainerua baino gehiago gustatzen zait, baina trainerua

itsasoan mugitzen denean... hori ere gauza berezia da”.

Euskadiko txapelduna

Kirol gogorra da arraunketa eta entrenamenduak ere gogorrak dira. “Berdin dio zein mailetan zauden, ia-ia berdin entrenatzen delako: sei egun astean eta 11 hilabete urtean. Neguan, gimnasioa eta ergometroa egiten ditut astean zehar, eta asteburuetan uretara irteten naiz: Raspasen, aulki mugikorra egiten dut, eta Busturialdean, trainerua. Udaberri-uda partean, denboraldia hastear dagoela, gehiago joaten gara uretara”.

Traineru beteranoan ibiltzeko proposamena egin diote, baina argi du ez duela hori onartuko. “Oso ondo ibili behar delako disfrutatzeko. Traineruan sasoian ez bazaude, uretan pisuak altxatzea bezala da. Lehian egonda gogorra den arren

eta bihotzak asko sufritzen badu ere, aulki mugikorra suabeagoa da, atseginaagoa”. Aulki mugikorrean berak bakarrik egin ohi du. “Nagusi bakarra naiz. Hala ere, seniorrekin ere, absolutuan, parte hartu dut batzuetan, *scull* bikoitzean, laukoan edo zortzikoan”. Garaipenak ditu: esaterako, *scull* bikoitzean brontzezko domina lortu du Espainiako txapelketan, eta zenbait domina Euskadiko txapelketetan, *scull* bikoitzean zein *skiflean*. “Aurten Euskadiko txapelduna izan naiz *skiflean*, masterrean eta distantzia luzean (6.000 metro). 18:23ko marka egin nuen”. Beste alde batetik, ARC1era igo da Santoña, Getxo eta Busturialdea klubetan egonda.

Hurrengo urteari begira, trainerua uzteko asmoa du. “Izan ere, udan egunero arraun egiteko moduan egoteko exijitzen du, eta nahiago dut udan libre egon. Aulki mugikorreko arraunketa egiten jarraituko dut, berriz, Espainiako txapelketetan, betterano mailan, parte hartzen segitu nahi dut eta. Nire asmoa da 100 urterekin ere arraunean egitea (kar-kar)”. Irakaslea da Bilboko Ingeniaritza Eskolan eta hango arraunlarien taldearen arduraduna ere bada. “Txapelketa bi urtean bertan behera utzi behar izan da COVIDa dela eta. Aurten berriro egingo da, ea Deusturen zorte oneko boladari buelta eman eta irabazten diegun!”.

Inoiz pentsatu du entrenatzaile ibiltzea. “Titulua atera beharko nuke horretarako eta momentuz ez dut astirik. Lehiatzeari uzten diodanean, agian pentsatuko dut ikastaroren bat egitea. Beti egongo naiz Raspasen edo Mundakan laguntzeko prest, baina entrenatzailea izatea beste gauza bat da eta ez dakit... Probatu beharko nuke”.

KORRIKAK apirilaren 6an zeharkatuko du Txorierri. Aurreikuspenaren arabera, 16:41ean Larrabetzutik sartuko da eta handik Loiurantz abiatuko da. Txepetxa AEK euskaltegiak martxoaren 18an aurkeztu zuen euskararen aldeko ekimen erraldoia Txorierriko Baserri Antzokian, Derion. KORRIKA 22. aldiz egingo da aurten, eta haren gaineko zehetasunez eta nondik norakoez gainera, datozen egunotan izango diren ekitaldien berri ere eman zuten. Omago musika-taldeak kopaua girotu zuen.

Olga Loroño da Txepetxa AEK euskaltegiaren arduraduna. Gogora ekarri zuenez, KORRIKAK bi helburu ditu. Horietako bat da euskaren aldeko aldarria zabaltzea. "Eta hori KORRIKAn hainbat modutan parte hartzen duten jendeari esker lortzen da: batzordeetan, ekitaldiak antolatzen, kilometroak erosten...". Beste helburua da dirua batzea euskaltegiei laguntzeko. "Egia da irakasleen baldintzak hobetu direla eta administrazioaren alde tik aurrerapausoak egon direla, baina oraindik bide luzea dago, esate baterako, doakotasunari dagokionez. Bestalde,

KORRIKA badator!



Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian ere pausoak egin diren arren, oraindik helduen euskalduntzeak behar dituen beste pauso batzuk ez dira egin. Horregatik,

esandakoari erantzuna emateko, euskalduntzeak jarraitu dezan eta euskaltegiak bete daitezzen, KORRIKAn helburuetako bat da baliabideak izateko dirua lortzea".

Apirilak 1, barikua

–Arrastian, umeentzako jolasak eta txi-txi-burruntzia, Larrabetzun.

–19:00 80 amandre helduentzako ipuin-kontalaria, Marikobaso Espazioan, Derion. Mixerabliak taldeak alaituko du iluntzea.

–19:00 arropa salmenta, korrika zozketa eta Ostikda Elektrotxaranga, Eran-diogoikoan.

Egitaraua

Apirilak 2, zapatua

–Herri bazkaria, Olako Kasinoan, Sondikan.

–Bertso-afaria, Txorierriko Baserri Antzokian (Derio), Lagatzu Zamudioko euskara elkarteak eta Zorritzketan Lezamako elkarteak antolatua. Bertsolariak: Etxahun Le-

kue, Oihana Bartra, Enare Muniategi eta Ibai Amillategi. Ostean, DJ Munza eta DJ Mangas.

Apirilak 6, eguaztena

–KORRIKA txikiak, eskoletan.

–KORRIKA pasatu aurretik, jolasak, tailerrak, txokolatada... herri guztietan.

Apirilak 10, domeka

–Donostiarako autobusa, KORRIKAn bukaera-festarako.



Oihana Bartra. a: Iñigo Fernandez de Martikorena

*Helburu bi daude: alde
batetik, euskararen
aldeko aldarria
zabaltzea; eta bestetik,
dirua batzea euskaltegiei
laguntzeko*

Txepetxa AEK euskaltegiko langileekin batera, Txorierriko euskaltzaleak batu ziren KORRIKAren aurkezpenean. Besteak beste, euskararen aldeko lasterketak gure bailaran egingo den ibilbidea azaldu zen, eta bertaratutakoek KORRIKAri buruz duten jakituria jolas baten bidez erakutsi zuten. Era berean, KORRIKA Kulturalari lotuta, Txorierrin egongo diren ekintzen berri eman zuten Txepetxakoek. Lerro hauek idatzi orduko, ekintza horietako asko egin dira, besteak beste, dirua biltzea, kalejira, umeentzako antzezlan eta bertsokorrika. Nolanahi ere, apirilaren 6an egongo diren ekintzak izango dira KORRIKAren inguruan.



TALDEA

GURENA

ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK

BABESPEKO APARTAMENTUAK
600 euro
asistentzia sanitarioa (24 ordu)

EGONALDIAK EGOITZEAN
egunean
gauean
asteburuetan

Unbe txiki bidea 9
LOIU 48180
(Urdaneta ikastetxearen aurrean)

944 530 049
www.gurena.com

ZURE NEURRIRA

Emaus Gizarte Fundazioa eta Athletic Fundazioa

t: Joanes Camara, gizarteratze-teknikaria

Emaus Gizarte Fundazioan ahalegina egiten dugu inguruko elkarteekin eta gainerako fundazioekin elkarlanean aritzeko, eta, hortaz, lana partekatze eta elkarri lagundu ahal izateko. Bide horretan, Athletic Clubarekin egin genuen bat 2021eko urrian.

Bagenekien Athletic Fundazioak gizarte-, kultura-, ingurumen- eta prestakuntza-proiektuen eskaintza zabala zuela era guztietako ekimenetarako, eta zalantzarik gabe, haiekin ipini ginen harremanetan, proiektu berri bat sortzeko. Hasiera-hasieratik aldeko erantzuna agertu zuten, eta lanari ekin genion, gaur egun fruituak ematen ari diren ideia batzuei itxura emateko.

Bestezerbitzubatzen artean, Emaus Gizarte Fundazioaren PAI Bitartean programak du egoitza bat Gamizen eta eguneko zentro bat Derion. Hori dela eta, astero toki bietan kirol-saio batzuk egiteko eskaera egin genion Athletic Fundazioari. Euren kirol-agendan lekua egin zuten eta ondo trebatutako monitorea bidali zizkiguten, fundazio bion arteko harremana hasteko. Harrezkero urte erdia pasatu da, eta kirol-saioetara joaten diren pertsonak pozik baino pozago daude bai euren beharrianetara egokitutako saioekin, bai monitoreekin.

Nabaria da erakunde honen tamaina handia. Hori, gainera, argi eta garbi utzi ziguten, Athletic Fundazioa Ganbara Gizarte Irratira gonbidatu ondoren, gure

egoitzara nor eta Andoni Goikoetxea txapeldun historikoa etorri zenean. Oso solasaldi atsegina izan genuen eta gogora ekarri genituen 1984an Liga irabazita garbarrak Bilboko itsasadarretik egin zuen ibilbidea, Goikoetxeak sartutako golak eta entrenatutako taldeak eta hainbat anekdota.

Bestalde, Athleticen museoa bisitatzea gomendatu ziguten. Goiz atsegina pasatu genuen bertan, klubaren historia ezagutzen, garaikurrak ikusten, San Mames Berriaren barrualdetik paseatzen eta futbol-zelaira ere sartzen. Esperientzia handia izan zen eta PAI Bitartean programaren erabiltzaileak oso eskertuta azaldu ziren.

Laburbilduz, Emaus Gizarte Fundazioan asko poztzen gaitu lankidetzaren netaz gozatu ahal izateak. Izan ere, lehen azaldu moduan, kirol-harreman batetik haratago doa eta lagungarria da Derioko eguneko egoitzara etortzen diren pertsonak –gizartetik kanpo daudenak edo egoteko arriskuan daudenak– errealizatuta sentitu daitezen.



izpilen
PARAFARMACIA • BELAR DENDA

Sabino Arana, 3 lonja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
946 558 000 - 689 998 843 - izpilen@gmail.com

RADIO TAXI FEMADE Zure taxi, Teorierikoa

Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Lolu

24h **94 480 09 09**

ERRESERBAK:

www.taxi.aeropotobillbaco.com

DESKARGATU APP-A

TAXI FEMADE

Landareak batzeko aholkuak

Orokorrean: hartu ondo ezagutzen duzuna; hartu neurritz eta soilik lekuan asko badaude; ez eraman dena, utzi beti zerbait; hartu bakarrik erabiliko duzun landarearen zatia; ez atera sustraitik, moztu ondo hazten jarrai daitezen; ez moztu loreen % 20 baino gehiago, zuhaitzak edo zuhaixkak badira; hartu bakarrik erabiliko duzuna, geroago itzuli ahal zara, edo beste leku batzuetara joan; ez jaso gune babestuetan edo parke naturaletan.

Non: larreetan eta autorik pasatzen ez den bide-ertzetan; goldatu gabeko basoetan; toxikorik erabiltzen ez den ortuetan eta lorategietan; INOIZ EZ areketan, fumigatutako landetan eta ibaiertz kutsatuetan.

Noiz: goizean, ihintza sikatu ondoren; hartu hostoak erabiliko ditugun egunean bertan; hartu loreak goizean eta sustraiak arratsaldean; landareak gorde edo sikatzeko, hobe da ilbehera denean jasotzea.

Materialak: eskularruak, artaziak, paperezko oihalezko poltsa, zumezko saskiak...

Ereinotza

t: Txiribita / a: www.fruteriadevalencia.com

Laurus nobilis. Ereinotzak Asian du jatorria, orain dela urteak eta urteak Mediterraneon errotu bazen ere. Olio esentzialak ditu, bereziki hostoetan eta baietan daudenak. Udaberrian loritzen da, eta bere fruituak udazkenean heldu. Hostoak urte osoan batu daitezke; hala ere, aholkua da beti historik gazteenak hartzea, eta udan, esentzia aromatikoak kontzentratuago izaten dira eta. Fruituak udazkenean jaso behar dira, helduta daudenean.

Sukaldean

Ezinbesteko gozagarria da Mediterraneo sukaldaritzan. Italian, likore bat egiten dute bere baiak erabilita: Laurino. Bestalde, sukaldean hosto freskoak zein lehorrak erabili daitezke, baina lehortzen badira, handik urte batera galduko dute lurrinaren zati handia eta garratzagoak izango dira. Hostoek digestioa egiten laguntzen dute, baita urdaileko mina arintzen ere, batez ere hartzidurari lotuta da goena.

Ezaugarri sendagarriak

Olio esentzialei esker, lagungarria da erreuma eta haragi-etenak arintzeko. Lasaigarria da, espektoraizailea eta digestio-laguntzailea. Izerdia arintzen du, eta Erdi Aroan izurriaren aurka erabiltzen zuten. Landare ona da digestio zail edo astunetarako: otorduen aurretik infusioa hartzen bada, digestioa errazten du; otorduen ondoren hartuz gero, haizeak ateratzen laguntzen du.

Ereinotz-infusioa: ur litro bakoitzeko 20-30 g ereinotz-hosto bota behar dira. Edozein infusio moduan prestatzen da. Lagungarria da hilekoaren zikloa erregulatzen.

Ereinotz-olioa: oliba-olio birjinetan 30 g ereinotz-hosto beratuko ditugu 10 egunean. Giharretako edo hezurretako minetarako, igurtzi edo masajeen bidez zabaltzen da. Erreuma- eta hantura-kontrakoa da eta, besteak beste, arintzen ditu tortikolisa, lunbalgiak, ziatika eta bihurturak.

Bitxikeriak

Laurus-ek "noblea" adierazten du latinez. Espezie garrantzitsu eta ezagun asko ereinotzaren familiakoak dira, hala nola kanela txinatarra eta ahuakatea. Hostoak giroa lurrintzeko erabili daitezke, eta armairuetan sitsen aurka (izpilikuarekin nahasi daiteke, eta urtaro bakoitzean berritu).



Apirilaren 4an hasiko da errenta aitorpena aurkezteko epea



a: Bizkaiko Foru Aldundia

Izapideak hiru eratan egin ahalko dira: bulegoetan, telefonoz edo Interneten bidez. Aitorpena egiteko epea apirilaren 4tik ekainaren 30era bitartean egongo da zabalik. Bizkaiko Foru Aldundiak apirilaren 4tik aurrera bidaliko ditu errenta-gutunak. Era berean, egun horretatik aurrera Aldundiaren egoitza elektronikoan zergadun guztien zirriborroak eskuragarri egongo dira. Aldundiak 2021eko ekitaldiari buruzko datu ekonomikoak (errendimenduak zein atxiki-penak) dituzten pertsona guztiei jakinarazpenak bidaliko dizkie apirilean. Jakinarazpen horietan Ogasunak adieraziko die aitorpena aurkeztu behar duten, zergak ordaintzeko aukerarik onena zein den (banaka edo batera) eta zirriborroaren behin-behineko emaitza. Hala ere, Ogasunak ez du jakinarazpenik zabalduko, zirriborroa osatzeko behar diren datu guztiak ez baditu.

Era berean, Bak gakoa aktibatzeak kode bat emango zaie identifikazio digitalerako sistema hori eta ordezkaritza-gakoa

ez duten pertsonen, beste pertsona batek errenta-kanpainako izapideak beren izenarekin egin ahal izateko. Ordezkaritza-gakoa ez zaie bidaliko adingabeei, hildakoen senideei eta mendeko pertsonen.

Laguntza

Errenta-aitorpena izapide korapilatsua da eta Aldundiak laguntza eskainiko du hainbat modutan. Batetik, aurrez aurreko bulegoetan: Balmasedan, Barakaldon, Basaurin, Bermeon, Bilbon, Gernika-Lumon, Getxon, Mungian, Durangon eta Portugaleten. Bulegoak lanegunetan zabalduko dira, 8:30etatik 19:00etara, eta haietan 126 agente egongo dira lanean. Zergadunak hitzordua eskatu beharko dute hara joateko, www.bizkaia.eus/renta webgunearen bidez edo Errenta 21eko aurretiko hitzorduen telefonoaren bitartez (944 066 600). Hitzordua eskatzeko epea apirilaren 1ean irekiko da.

Bizkaitarrok telefonoz ere jasoko dugu laguntza, hala nahi izanez gero, 946 083 000 telefono-zenbakian. Guztira, 311 agente ibiliko dira lanegunetan, 08:30etatik 19:00etara, zergadunei zirriborroa

Errenta-aitorpena egiteko hiru era daude: bulegoetan, online eta telefonoz

berrikusten eta osatzen eta aitorpena aurkezten laguntzen, baita zalantzak argitzen ere. Azken aukera Internet da, www.bizkaia.eus/renta webgunean eta Renta Bizkaia Errenta aplikazioan. Bi kasuetan beharrezkoa da identifikazio elektronikoko baliozko sistema batekin identifikatzea. Zergadunak horrelakorik ez badu, bere Bak gako propioa sor dezake errenta-gutunean jasotako aktibazio-kodea erabiliz.

Itzultzeko eta ingresatzeko epeak

Aitorpena aurkeztu ondoren, dirua itzuli behar bazaio, zergadunak zazpi eguneko epean jasoko du dirua bere bankukontuan, berak aurkeztutako datuen eta Ogasunak dituen datuen artean desadostasunik ez badago. Zirriborroa aurkezteko edo aldatzeko ekintzarik egiten ez bada, automatikoki jasoko du diru-sarrera uztailera lehen egunetan, errenta-aitorpena aurkeztera behartuta egon edo ez. Dirua Ogasunaren alde ordaindu behar bada, diru-kopurua zergadunaren bankukontuan zordunduko da kanpaina amaitu ondoren, aitorpena aurkeztu den edo ez kontuan hartu gabe.

Nortzuek aurkeztu behar dute

Ogasunak gutunaren edo jakinarazpen elektronikoaren bidez jakinaraziko dio zergadun bakoitzari PFEZen aitorpena aurkeztu behar duen ala ez. Arauaren arabera, hurrengo hauek ez dute aitorpena aurkeztu behar: 14.000 euroko edo gutxiagoko laneko etekin gordinak izan dituztenek; 14.000,01 euro eta 20.000 euro bitarteko laneko etekin gordinak izan dituztenek; eta kapitalaren etekin gordinak eta ondare irabaziak lortzen dituztenek, horiek urtean guztira 1.600 euro baino gutxiago badira.



Joseba Sarrionandia Baserri Antzokian

t: Juan Luis Goikoetxea

Josebak ez du aurkezpenik behar, bera da bere buruaren enbaxadorerik onena-eta. Ez du behar aurkezpenik, baina merezi bai. Horixe bai, gero!

Martxoaren 10ean dihardut artikulua idazten, Sarrionandia Baserri Antzokira etorri baino lehen. Hau harridura, irakurle! Joseba aurpegiz aurpegi ikusi dudala 46 urte dira. Oker ez banago, 1976an Uztaritzen, bera 18 urteko zela. Gogoan dudana da, Arzalluz politikaria ere aretoan zelarik, eztabaidak sugar handiak piztu zituela. Eztabaidarako gai askoren artean, bat hurrengo urteko hauteskundeak ziren, 1977koak, 41 urtez hauteskunde barik egon ondoren

–1936tik 1977ra– burutzeko zirenak. Bali-teke neu izatea bilkura hartan azken berbak esan zituena. Zalantzarik ez dudana da Josebak argi bezain garbi daukala zelan Udako Unibertsitate hartan partaiden izan ginen.

Harrezkero, Euskal Herria itzelean aldatu da, eta Sarrionandia geure artera etorri. Nik izan dut aukera telefonoz –berak smartfonoz hitz polita darabilharremana izateko. Halanda guzti ere, estimatuko nuke musturreko barik komunikatzea, ahots hots beroa entzutea.

Berez, berba egiten ikastea fenomeno naturala da, sendiko eta inguruko bizitzak eskaintzen diguna. Irakurtzea, oster, ez da izan fenomeno naturala

inoiz; irakurketak ahalegina eskatzen du. Gero, ondo irakurtzen ikasi bada, ondo idazteko bidean gara. Orduan, nonork irakurtzen badaki, edozein liburu gerta dakioket egoki? Tira! Mendi guztiak ez dira altura berekoak. Everest-era igotzeko eskalatzaileak behar-beharrezko ditu: katu-oinak, kordak, esku-babesa, kaskoa, arnesak eta gainerako tresna guztiak.

Joseba Sarrionandia Uribelarrearen sortze-lanak irakur ditzagun, zer tresneria da oinarritzko? Hitzaren bidezko artea, ahozko literaturakoa eta literatura idatzikoa atsegin izatea, gura izatea. Sarrionandia berton dugunez gero, zer irakurtzea gomenda daiteke? Poema musikatuak ditun maite? Har ezan beraren *Poema musikatuak* liburukia. Ipuina duk gogoko? Narrazioak liburua duk aproposa. Prest haiz 708 orriko saiakera liburuan murgiltzeko? Hartu esku bietan *Moroak gara behelaino artean?* liburu entziklopedikoa.

Korrika dabilen euskaldunak, zer gozagarriagorik sarri-sarri irakurtzea baino!

RPS: 184/10



TIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18



**Hortz-klinika
IDOIA ZUBIETA**

Osasun-zentroa & Hortz-estetika
HORTZ-INPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Aretza doktorea, 11. - 1. esk.
48011 BILBAO
T: 944 416 322

Urbe Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370



**ZAMUDIO
Loteria Nazionala**

Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com

Etxeko sukaldaritza

Indaba zuriak txipiroiekin

t: Maite Lekerika

Osagaiak (lau pertsonentzat):

- 300 g indaba zuri.
- 2 porru
- Kipula txiki bat edo erdia.
- 2 berakatz-atal.
- 400 g txipiroi (garbituak eta txikituak).
- Tomate heldu bat.
- Oliba olio.
- Gatza.

Prestatzeko era:

Bezperan ipiniko ditugu indabak beretzen, eta ur hori erabiliko dugu hurrengo egunean lekaleak egosteko. Beharrezkoa bada, ur hotza gehituko dugu. Indabak bigundu arte egingo ditugu. Kipula, porruak eta berakatzak txikitu, eta olio-zurrusta batekin su ezian erregosiko ditugu. Tomatea gehituko dugu, eta hura biguntzen denean, txipiroiak. Su ezian bost minutu inguru izango dugu eta ondoren indabei botako diegu. Irakiten izango dugu, suabe, salda loditu arte.

a: unpellizcodecanela.blogspot.com



Sagar-coulant faltsua

a: pexels-pixabay-62687

Osagaiak (4 pertsonentzat):

- Sagarak (gorriak, berdeak...)
- Egiteko txokolatea

Prestatzeko era:

Sagarren goiko aldeak ebakiko dugu, gero estalki moduan erabiltzeko. Zuloa egin eta kontu handiz haziak kenduko ditugu; hala ere, ez dugu sagarren bihotz osoa kenduko, izan ere, zuloan txokolatea botako dugu gero, eta osorik kentzen bada, txokolatea sagarraren beheko aldetik aterako da. Estalkia ipini, eta sagarrak aurretik berotutako labera sartuko ditugu. Bertan 20 minutuan izango dugu 180 gradutan. Coulant-a bero jan behar da.

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

SANTI MAMI
ALBAILARITZA
Elena Lombana (elk.553)
Tel.: 944 541 377 - Faxa: 944 541 215
10:00-14:00 / 18:00-19:00
(hitzordua eskatu behar da)

PATXI
KOOP

PAI KOOPERATIBA ELKARTEA
Nabarra gurgosua / Euzkara 4. 48170 Zamudio (Bizkaia) - Tel: 944 522 857 / info@paxi.coop / www.paxi.coop

L. LEIZOLA PLAZA 2 (ZAMUDIO)
946 522 857

CK
OAKLAND
ENGLISH

GAMINIZ
JATETXEA

Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37" N

www.gaminiz.com

Umeen txokoa: zazpi desberdintasunak

Ezetz zazpi desberdintasunak topatu irudi bien artean. Bukatzen duzunean, irudiak margotu eta moztu ahal dituzu. a: www.turbulus.com



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

–Nire Uztapide (Erein), Pako Aristi Urtuzaga.

–Austerlitz (Igela), W.G. Sebald. Itzultzailea:

Idoia Santamaria.

–Bretxa (Erein), Toti Martínez de Lezea.

–Amez (Alberdania), Goiatz Labandibar Arbelaitz.

LITERATURA: GAZTEAK

–Zer gertatzen da klimarekin? (Erein), Ole Mathismoen. Ilustratzailea: Jenny Jordahl.

–Bihurrikeriak Sabikan (Saure), Gerardo Fabián Cosenza.

–Irakurtzen ez zekien zakurra (Erein), Koldo Izagirre Urreaga. Ilustratzailea: Irrimarra bikote sortzailea.

–Oharra (Pamiela), Pilar Serrano Burgos. Ilustratzailea: Daniel Montero Galán. Itzultzailea: Jone Irazu Garikano

Sudokua

					9	6	7
1				3	8	5	
		1		6	2	7	3
		6	3	8			9
2				1			9
8				2			6
			5		9	8	

2	7	8	6	4	5	3	1	9
9	5	1	3	2	7	4	6	8
3	6	4	9	1	8	5	7	2
5	4	9	7	6	1	2	8	3
6	1	2	5	8	3	9	4	7
8	3	7	2	9	4	1	5	6
1	8	3	4	7	9	6	2	5
4	2	5	8	3	6	7	9	1
7	9	6	1	5	2	8	3	4



LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisol 4, behea B 48150 SONDIKA 634 410 470
aузokidefincas@gmail.com



Erakusketak

Sondika

- > Marrazkigintza eta pintura udal-tailerren lanak. Apirilaren 1etik 28ra, liburutegiko erakusketa-gelan.

Derio

- > "Haur eta nerabeen babesa kirolean. Graduondoko amaierako lanen posterrak". Apirilaren 13ra arte.

Hitzaldia

Larrabetzu

- > Nahia Zubeldiaren *Hamazazpigarren-ean aidanez* liburua aurkeztea (Geuretik Sortuak egitasmoa). Apirilaren 7an, 19:00etan, Anguleri kultur etxean.
- > Literaturaz Berbetan: Irati Jimenezen *Begiak zabalduko zaizkizue*. Apirilaren 28an, Anguleri kultur etxean.



Ikastaroak

Sondika

- > Ludoteka txiki: paperezko hegazkinak, klarionak, pultserak, jolasak, birziklatzea... Apirilean.
- > Ludoteka gaztea: gailetak, jolasak, kometak, margolanak... Apirilean.
- > Gaztetxea: jolasak, lehiaketak, ogi-torradak... Apirilean.

Derio

- > Argazkigintza hastea. Apirilaren 5etik 28ra, 19:00etatik 21:00era, Kultur Birikan. DATEk eta udalak antolatua.
- > Tai Chi. Apiriletik urrira, eguaztenetan eta eguenetan, 11:15etik 12:15era. Izena ematea, Kultur Birikan.

Zamudio

- > Aste Santuko ekintzetan izena ematea, Gaztestazioan: apirilaren 8ra arte. Lehiaketak, bazkaria, irteerak, tailerrak...

Ikuskizunak

Sondika

- > Anjel Colladoren bakarriketa. Apirilaren 22an, 19:00etan, gaztetxean.
- > *Perez sagutxua*. Apirilaren 30ean, 17:00etan eta 19:00etan, Kultur Etxean. Gonbidapenak: apirilaren 4tik aurrera, liburutegian.

Zamudio

- > *Gertakari paranormalak* ipuin-kontaketa, Elsie Xalbadoren eskutik. Apirilaren 23an, 11:30ean, udal-liburutegian. Izena eman behar da aurretik.

Larrabetzu

- > *Sexberdinak* antzezlan (Geuretik Sortuak egitasmoa). Apirilaren 1ean, 19:00etan, eskolako aterpean.
- > Errezitaldia: *Etxepare jalgi hadi batura*, Xabier Amurizaren eskutik. Apirilaren 30ean, 19:30ean, Hori Bain.

Irteerak

Sondika

- > Solazpi zalditegia. Apirilaren 12an, 10:00etatik 14:00etara. Izena ematea: apirilaren 1etik 5era, ludotekan (errolatuek: 10 euro; gainerakoek: 21 euro). Ludoteka gazteko umeentzat.
- > Zirkozaurre. Apirilaren 13an, 10:00etatik 14:00etara. Izena ematea: apirilaren 1etik 5era, ludotekan (errolatuek: 10 euro; gainerakoek: 30). Ludoteka txikiko umeentzat.
- > "On gravity". Apirilaren 21ean, 11:00etatik 14:00etara. Izena ematea: apirilaren 1etik 10era, gaztetxean (errolatuek: 8 euro; gainerakoek: 16 euro).



Zamudio

- > Uda Gaztea egitasmoaren bidaiari aurretiko izen-ematea, Gaztestazioan: apirilaren 1etik 10era.



Kirola

Zamudio

- > Euskal Herriko Itzulia. Apirilaren 7an (ailegatu) eta 8an (irten).

Musika

Zamudio

- > Zamudioko Kamara Korala. Apirilaren 9an, 19:00etan, San Martin elizan.

Larrabetzu

- > Udaberriko kontzertuak: Gaztelumendi (Larrabetzu), lamiñe (Fruiz) eta Maximo Moreno abesbatzak. Apirilaren 2an, 20:00etan, elizan.
- > Domekak Hori Bain: Intza. Apirilaren 3an, 18:30ean.
- > Habemus Papam eta Boot Boys. Apirilaren 9an, 21:30ean, Hori Bai gaztetxean.

Bestelakoak

Loiu

- > Motorren kontzentrazioa, Txoribikers elkarteak antolatuta.

Derio

- > Odola ematea. Apirilaren 20an, 16:30etik 21:00etara, anbulatorio aurrean.

Zamudio

- > Liburuen rallya, apirilean.

Larrabetzu

- > Liburu bat maileguan eta beste bat opari. Apirilaren 29an, 18:30ean, plazan.

ERREKA
JAT
ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familiaren bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnua: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

GORBEIA MERTZERIA

Gorbela kalea, 7
ZAMUDIO
94 855 90 06

Carrefour
express

ORDUTEGIA
Astelehenetik ostiralera arte
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbatean
9:00-14:30

Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO

Txorierriko azken albisteak jaso nahi dituzu?



Bidali ALTA

747 406 561
telefono zenbakira

Izan zaitez berriemale ere. Bidali zure argazki, bideo eta berriak.

Hilero lagun birentzako bazkaria zozkatuko dugu parte-hartzaileen artean (Baserri Antzokian).



STIHL

2022KO UDABERRIA

**MUNDUA ZURE LORATEGIAN
HASTEN DA**

**ZAINDU ZURE STIHL
ADITUAREKIN BATERA**

GAMARIK HANDIENA ETA
ZERBITZURIK ONENA

agrojardín
Astikene



BANATZAILE PREMIUN
BAKARRA BIZKAIRAKO

Astikene industrialdea, Berezi 23C
48160-Derio BIZKAIA
944 540 652
688 633 197

astikene@agrojardinastikene.com
www.agrojardinastikene.com